




ZAINTZA DENONTZAT AZPEITIA 2025

ZAINTZEN ERREALITATEAREN GAINEKO DIAGNOSTIKO KUALITATIBOA

AZPEITIKO UDALA

Azpeitia
Denontzat

Zabalduz Gizarte Ekimeneko Kooperatiba
2025eko maiatza



1. AURKIBIDEA

1. AURKIBIDEA.....	2
1- SARRERA.....	4
2- DIAGNOSTIKO KUALITATIBOAREN OINARRI TEORIKOAK.....	5
2.1 Zaintzak	5
2.2 Zaintzaren krisia eta ongizate sistemen mugak	6
2.3 Dikotomiekien hautsiz.....	6
2.4 Erantzun- kidetasuna eta ardura soziala: Elkarlan publiko-komunitarioaren erronka .	7
3 DIAGNOSTIKO KUALITATIBOAREN HELBURUAK ETA LAN METODOLOGIA.....	10
3.1 Diagnostikoaren helburuak.....	10
3.2 Parte hartzaileak eta lan metodologia	10
3.2.1 Talde estrategikoa	10
3.2.2 Parte hartzaileen profila.....	11
3.3 Informazioa biltzeko tresnak.....	13
3.3.1 Galdetegi itxia.....	13
3.3.2 Talde elkarrizketak – Focus Group	13
3.3.3 Elkarrizketa egituratua	14
3.3.4 Kontraste eta deboluzio saioak	14
3.4 Aspektu etikoak.....	14
3.5 Datuen analisia.....	14
3.6 Kronograma.....	15
4 PARTE HARTZE MAILA	16
4.1 Galdetegi itxia bete duten herritar kopurua eta profila	16
4.2 Talde elkarrizketetan parte hartu duten pertsona eta eragile kopurua eta beraien profila	18
4.3 Elkarrizketa indibidualetan parte hartu duten pertsona kopurua eta profila	19
5 JASOTAKO INFORMAZIOAREN ANALISIA	21
5.1 Galdetegi itxien bidez jasotako informazioaren analisia.....	21
6 BANAKAKO ELKARRIZKETA ETA TALDE ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO INFORMAZIOAREN ANALISIA	32
A. BLOKEA: Zaintzen gaineko kontzepzioa edo ikuskera.....	32
B. BLOKEA: Zaintza politikak.....	37
C. BLOKEA: Zaintzekiko sentsibilizazioa eta erantzun- kidetasuna	43
D. BLOKEA: Azpeitiko Zaintza Ekosistema	47

7.	ONDORIO NAGUSIAK.....	51
7.1	Esfera publikoa	51
7.2	Esfera pribatua	51
7.3	Esfera komunitarioa	52
7.4	Familia zaintzaileen esfera	52
7.5	Zaintza beharrak dituzten pertsonen esfera.....	53
8.	BIBLIOGRAFIA	54
9.	ERANSKINAK.....	56
a.	Eranskina 1: Galdetegi itxia	56
b.	Eranskina 2: Talde elkarrizketa – Focus Group	60
c.	Eranskina 3: Bakarkako elkarrizketa – Elkarrizketa erdiegituratua	67

1- SARRERA

Azpeitiko Udaleko Gizarte Zerbitzuen sailetik, Matia Institutuaren eta Zabalduz Gizarte Ekimeneko kooperatibaren bide laguntzarekin, Azpeitiko udalerriak zaintzak erdigunean kokatuko dituen herria bilakatzeko egitasmo bat jarri du martxan, Zaintza Denontzat izenarekin hain zuzen ere.

Zaintza lanak antolatzeko eta gauzatzeko ditugun moduak, zerbitzuak, baliabideak eta formak birpentsatu eta eraldatzeko beharraren aurrean, Azpeitiko zaintza sarea artikulatzeko partaidetza prozesu bat abian jarri da, non gaur egungo zaintza beharren nahiz errealitatearen diagnostikoa egiteaz gain, datozen urteetarako bide orri bat diseinatu nahi den eragile publiko, pribatu nahiz komunitario guztien artean.

Prozesu honetan gainera, zaintzen horniduran zeresan nabaria duten norbanakoak ere parte hartuko dute. Zaintzaile profesional zein familiarrak. Eta nola ez, zaintza beharrak dituzten pertsonak ere.

Herri mailan zaintzak eman eta jasotzen dituzten eragile eta pertsona oro artikulatu nahi ditu egitasmo honek alegia, errealitatearen gaineko ikuspegi eta diagnostiko elkarbanatu batetik abiatuz, zaintzak antolatu eta gauzatzeko modua eraldatuz ekintza plan bateratu baten bidez.

Azpeitiko zaintza ekosistemaren garapenaren baitan, hainbat ekimen edo lan lerro (Herri hausnarketa, analisi soziodemografikoa eta gizarte zerbitzuetatik eskaintzen den arretaren eraldaketa prozesua) ari dira aurrera eramaten. Hala ere, dokumentu honetan, Azpeitiko Zaintza Denontzat egitasmoaren baitan burutu den diagnostiko kualitatiboa aurkituko duzue. Bertan, herriko norbanako, eragile publiko-pribatu-komunitario nahiz zaintzaile familiar eta profesionalen eta zaintzak jasotzen dituzten pertsonak zaintzekiko eta zaintzen antolaketarekiko dituzten iritzia, hausnarketak, ikuspegi anitzak, proposamenak eta ondorio nagusiak aurkituko dituzue.

2- DIAGNOSTIKO KUALITATIBOAREN OINARRI TEORIKOAK

Diagnostiko kualitatibo honen atzean, hainbat oinarri teoriko eta akademiko daude eta garrantzitsua iruditu zaigu labur bada ere hemen jasotzea:

2.1 Zaintzak

Zaintzak hitz egiten ari garenean, derrigorrezkoa da zaintzak pertsona ororen bizitzetan duen inpaktuaz hitz egitea; izan ere, denok baikara elkar-mendeko. Bizitzako edozein momentutan aurkitu gaitezke beste pertsona baten laguntzaren beharrean; jaio berriak garenean, laguntza emozionala behar dugunean, zailtasun edo mendetasun egoera baten aurrean gaudenean... Kasuan kasu, zaintzak hitz egiten dugunean kontuan izan beharreko lehen aspektua hau da: denok gara elkar mendeko eta denok behar ditugu zaintzak gure bizitzako uneren batean.

Historian zehar, zaintza, pertsonen ongizate fisiko, psikiko eta emozionala eskaintzearekin lotu da (Finch 1989, Comas D'Argemir 1993). Nolanahi ere, kontuan izan behar da zaintzak ez duela gauza bera adierazten kasu guztietan (Saitua eta Sarasola 1993); izan ere, desberdina da, haurrak eta nerabeak zaintzea edo adineko pertsona bat zaintzea; desberdina da adineko pertsona osasuntsu bat zaintzea, bere kabuz baliatzen dena, edo erabat besteen mende dagoena (Saitua eta Sarasola 1993).

Gure mendealdeko kultura patriarkalean, zaintza lanak genero rol banaketarekin bat etorri dira, hau da, emakumearen eginkizun gisa hartu dira lan hauek. Pautassi, Faur eta Gherardik (2004) azaltzen duten bezala, gaur egungo gizartean aurkitzen den errealitateak, emakumeen laneratze prozesuarekin besteak beste, lotura zuzena du. Emakumeek etxean kudeatzen zituzten zaintza lanak ezin izan dituzte alde batera utzi, edota elkarbanatu. Hau da, gizonezkoek bezala etxetik kanpo lanean egonda ere, etxeko lan eta zaintza lanak, ume zein adinekoek eskatzen dituztenak, emakumearen gain geratzen dira. Emakumeek jaiotzen diren momentutik barneratzen dute zaintza lanak bereganatu beharra dituztela.

Egia da, azken urteetan emakumeen ikuspuntua gai honekiko aldatzen joan dela. Tornsek (2005) dioen bezala, emakumeak nazkatzen hasiak dira lanean etxetik kanpo egoteaz gain, etxeko eta zaintza lanak oraindik gizartearen begietan emakumeen arduratzat hartzeaz.

Errealitate honen aldaketaz gain, gizarte mailan beste hainbat aldaketa sozial ere eman dira; hala nola, aldaketa demografikoak (biztanleriaren zahartzea), gizarte geroz eta indibidualistago baten joera, familia eredu berrien agerpena, lotura komunitarioen galera... Honek guztiak, zaintzen krisian murgiltzea eragin du. Zentzu honetan, itxialdiak eta Covid-19ko pandemiak

orokorrean, agerian utzi du orain arte zaintza lanak gauzatzeko ditugun moduak, zerbitzuak eta formak birpentsatu behar ditugula (Arrieta 2022).

Goikoetxeak (2020) aipatzen digun bezala, garrantzitsua da zaintza beharrak dituzten pertsonak zaintzerako garaian, gizartean dugun begirada soziala lantzea. Autorearen hitzetan, zaintza ez da soilik oinarritzko beharrak asetzeko zerbitzu eta esku-hartzeetara soilik mugatu behar; tratatu oneko harremanak sortu behar dira, aitortu eta estimatu oinarrituta. Horrela, zaintzak harremanaren giza dimentsio bat hartzen du, non pertsonen erantzukizunean oinarritzen den, eta ez hainbeste zaintza beharrak dituzten pertsonen gabezia edo beharrezaneko kezkan. Era horretara, pertsona orok, bere bizi-proiektua duintasunez garatu ahal izatea ahalbidetuz.

2.2 Zaintzaren krisia eta ongizate sistemen mugak

Azken urte hauetan asko izan dira zaintzen krisiaren arrazoiak eta ondorioak aztertu ulertu eta neurtzea xede izan duten ikerketak. Gaur egungo errealitate demografiko eta sozial berrien aurrean (biztanleriaren zahartzea, indibidualismoaren joera, familia eredu berrien agerpenak...) herrialde ezberdinetako ongizate-sistemek eta bertako gizarteak zaintza beharrei erantzuteko dituzten gabezia eta mugak agerian gelditu dira, pertsona askoren bizitza kalitatean zuzenean eraginez:

“Egun, sistemak ez du gaitasunik biztanleriaren geruza askoren ongizatea bermatzeko eta datozen urteetan egoerak okerrera egingo duela iragartzen dute datuek, zaintzak beste era batera eratzen ez baditugu behintzat. Biztanleriaren zahartzeak, menpekotasun indizearen gorakadak, emakumeen lan merkaturatzeak, politika neoliberalen garapenak eta askotariko familia ereduaren hedapenak (besteak beste, familia geroz eta txikiagoan eratzea) zaintzak antolatze moduetan inpaktu handia izan dute” (Emagin 2020).

COVID-19ak eragindako krisi soziosanitarioak gainera are gehiago okertu du egoera, zaintzen krisian are gehiago sakonduz.

2.3 Dikotomiekin hautsiz

Ekonomia feministak egungo eredu sozioekonomikoa zalantzan jartzen du eta kapitala eta bizitza dikotomiaren arteko konfrontazioaren aurrean jartzen gaitu. Lanaren ulerkera produktibista gainditu eta lanaren kontzepzioa lan erreproduktiboaren eta zaintzaren eremura

irekitzea proposatzen duen marko teoriko alternatiboa proposatzen digute ekonomialari feministek. Genero berdintasunaren aldarrikapenetik haratago, bizitzaren iraunkortasuna erdigunean jartzen duen eta merkatua, lan ordaindua eta ez ordaindua, produktiboa eta erreproduktiboa barne biltzen dituen marko kontzeptual berri bat (Borderías, M et al., 1994; Pérez Orozco 2019). Honekin batera, pertsona autonomo eta mendekoen dikotomia gainditzearen beharra ere azaleratzen da eta gizakiok elkar mendekoak garela jartzen da oinarrian.

“Todas las personas en todos los momentos de nuestras vidas necesitamos cuidados porque nuestras vidas son vulnerables. Esto nos impone pensar la economía desde un enfoque de interdependencia, cuestionando la estricta distinción entre sujetos autosuficientes y dependientes” (Pérez Orozco 2019)

2.4 Erantzun- kidesuna eta ardura soziala: Elkarlan publiko-komunitarioaren erronka

Zaintza ekosistema bezalako egitasmo bat aurrera eramateko ezinbestekoa da, ardura sozialaren edota erantzun-kidetasunaren inguruan hitz egitea. Hurrengo lerroetan, zaintza ekosistemaren baitan elkarlan publiko-komunitarioa sustatzeko edota zaintzen antolaketa eraldatzeko orduan ardura sozialak eta erantzun- kidesunak duen garrantziaz hitz egingo da.

Lehenik eta behin, beharrezkoa da ardura bera zer den ondo ulertzea. Berman (1997) autorearen hitzetan: ardura, beste norbanakoen eta planetaren ongizatea lortzeko egiten dugun inbertsio pertsonal gisa ulertu behar da. Hau da, ardura besteak nola tratatzen ditugun eta beraiekin dugun elkarbizitzan oinarritzen da. Inguruan dugun edonorekiko errespetu eta berdintasunean sinisten badugu, ardura beste betebeharrak bat bezala ulertzen du autoreak.

Gizartean eman diren aldaketen barruan, ardura kontzeptuaren eraldaketa bat aurkitzen dugu ordea. Ardura komunitarioak arlo sozialeko profesioetan garrantzi handia irabazi du. Cabrerak (2006) dioten bezala, ardura soziala kontzeptuak, konpromezu ekonomiko bezala ulertzetik, gizartearekiko konpromezu gisa ulertzerako jauzia eman du.

Moriren (2009) hitzetan, duela gutxi arte, arduraren gainean gizartean gailentzen zen ikuspegia enpresen ikuspegia zen. Hau da, arlo soziala alde batera utziz, arlo ekonomikoak zuen soilik garrantzia. Hala ere, autoreak defendatzen duen moduan, ikuspegi komunitario arduratsu bat txertatzen hasia da gizartean. Komunitatean oinarritutako gizarte arduratsu bat lortzeko,

autoreak guztiz beharrezkoa ikusten du gizarteak, enpresek eta estatuek elkarlanean herri eta hiriak garatzea. Azken finean, gizarteak garapen bat izatea nahi badugu, ikuspegi komunitarioa izan eta ardura soziala erdigunean jartzea ezinbestekoa da (Mori, 2009).

Ardura zergatik den hain garrantzitsua eta gizartean bizi garelako arduratsuak izan behar garela ikusteko, Schwald-ek (2004) ardura kontzeptualizatu egiten du ekintzetan oinarritutako filosofia gisa. Hau da, gizartearen parte den pertsona orok bere ekintzen ardura du, onerako eta txarrerako. Bakoitza bere ekintzekin ondoko banakako edo talde bati egin diezaiokeen onura edo kaltearen ardura soziala duela dio. Hau da, ardura komunitatearen parte diren beste kideekin lotzen du, elkar zaintza denon ardura dela defendatuz. Beraz, ardura soziala ez da banakakoari kanpo geratzen zaion errealitate bat, baizik eta komunitatearen parte den orori dagokion ardura komunitario sozial bat (Montero 2004).

Komunitatea zer den definitzea ere garrantzitsua da. Robertisek eta Pascalek (2007) azaldu dutenez, komunitateak kideen arteko antzekotasunarekin eta identitatearekin du zerikusia, "elkarrekin bizi diren eta interes komunak dituzten pertsonen bilera da" (31.or.).

Definizio hau osatzeko beste autore batzuk lurraldearen eta gizarte- elkarreaginaren garrantzia azpimarratzen dute. Záratek (2007) aburuz komunitatea leku berean bizi diren eta, interesak partekatzean eta elkarren artean harremanetan jartzean kide izatearen zentzua garatzen duten pertsonen taldea da. Ander-Egg-ek (2005) ikuspegi zabalago bat eskaintzen du, komunitatea espazio bat partekatzea ez ezik, laguntza- eta komunikazio-harremanak mantentzea ere badela azpimarratuz. Autore honen arabera, komunitatean pertsonen beste testuinguru batzuetan baino harreman estuagoak izaten dituzte, helburuak lortzeko, arazoak konpontzeko eta bizikidetzarako funtzio garrantzitsuak betetzeko sareak osatuz.

Beraz, ezin da komunitatea herri, auzo edo beste edozein muga espazialekin alderatu, izan ere, horietako bakoitzean komunitate bat baino gehiago, bakarra edo bat ere ez egon daiteke (Zuñiga eta Arrieta, 2021).

Ardura eta komunitatearen arteko lotura hobeto ulertzeko Monterok (2003) landutako ideiak erabiliko ditugu. Aldaketa sozial bat aurrera eramateko erraminta boteretsuena komunitatea dela dio; baina, ezingo da prozesu komunitariorik aurrera eraman agente sozialik gabe. Zentzu honetan, komunitatearen parte diren agente sozialek komunitatearekiko eta bertan gauzatuko diren ekintzekiko ardura hartu behar dute, banakakoaren ardura sustatuz. Aldi berean, aldaketa sozial horretan sinistu ahal izateko banakako orori komunitateak ematen dio parte hartzeko aukera, komunitateko helburu, balore eta oinarriak ezartzeko beta, eta arazoa

problematizatzeko eta irtenbideak bilatzeko bidea (López-Cabanas eta Chacónek 1999). Horregatik, Monterok (2004) komunitatean arduraz parte-hartzea garapen pertsonalerako bide gisa ulertu daiteke.

METODOLOGIA**3.1 Diagnostikoaren helburuak**

Diagnostiko kualitatiboa, herritarren eta herriko eragileen begirada soziala, sentsibilizazioa eta aktibazioa sustatzeko tresna izateaz gain, zaintzen baita eragina edo zeresana duten esferen ikuspegi, iritzi eta proposamenak jasotzeko baliabidea ere bada. Ondorioz, diagnostiko kualitatiboak askotariko helburuak lortzea ahalbidetzen du.

Hurrengo zerrenda jaso ditugu diagnostikoaren helburu espezifikoak:

- Zaintzaren inguruko hausnarketa eta sentsibilizazioa sustatu.
- Zaintzen gaineko begirada soziala eta erantzun- kidetasuna sustatu
- Eragile sozialak identifikatu eta aktibatu.
- Ehun komunitarioen saretze maila eta dinamika ezagutu.
- Erakunde publikoen eta ehun komunitarioaren arteko harremana aztertu
- Herritarrek eta eragileek zaintzaren inguruan duten ulerkera edo kontzepzioa ezagutu.
- Herritarrek eta eragileek zaintza politiken edo gizarte zerbitzuen gainean duten ezagutza maila eta iritzia ezagutu.
- Zaintzen ardura edo erantzun- kidetasunarekiko norbanako eta eragileek dute iritzia ezagutu edo ikuspegia ezagutu.
- Zaintzen gaineko ikuspegi anitzak jaso (esfera ezberdinen ikuspegia) eta elkarren arteko ezagutza eta enpatia landu.
- Zaintza ekosistemaren artikulazioa sustatu. Esfera ezberdinen arteko lankidetzat sustatu.

3.2 Parte hartzaileak eta lan metodologia**3.2.1 Talde estrategikoa**

Azpeitiko Zaintza Ekosistema egitasmoaren diseinu, garapen eta jarraipenerako talde eragile bat sortu da. Talde honek udalaren, Matia Institutuaren eta Zabalduz Kooperatibako lan-taldearen arteko eguneroko koordinazioa bermatzeaz gain, egitasmo osoaren koherentzia bermatu du.

Diagnostiko kualitatiboaren diseinu eta garapena ere talde estrategiko honetatik kudeatu da eta zehazki hurrengo funtzioak hartu ditu bere gain gobernantza espazio honek:

- Diagnostiko kualitatiboaren ko- diseinua
- Informazio biltzeko tresnak aztertu eta egokitu

- Eragileen identifikazioa eta zerrendatzea (kontaktuak barne)
- Diagnostiko kualitatiboan parte hartu duten pertsona eta eragileekin harremanak koordinatu
- Diagnostiko kualitatiboaren komunikazio plana eta ekintzak diseinatu eta gauzatu
- Diagnostikoaren jarraipen orokorra

Talde estrategikoa hurrengo kideek osatu dugu:

Talde estrategikoa	
Azpeitiko Udala	Gizarte zerbitzuetako arduraduna: Edurne Zubia Gizarte langilea: Aitor Beloki Arduradun politikoa: Leire Goenaga
Matia Fundazioa	Matia Fundazioko teknikariak: • Nerea Etxaniz • Maider Azurmendi
Zabalduz Kooperatiba	Zabalduz Kooperatibako teknikariak: • Katrin Etxebeste • Andoni Zulaika • Naiara Franco

Udalak proiektuaren lidergoa izatea oso garrantzitsua izan da diagnostiko kualitatiboa martxan jartzeko. Diagnostikoa garatu ahal izateko garrantzitsuak diren informazio eta kontaktu asko eskaini dituelako eta, eragile edo pertsona hauei, aurretik informatu edota haiekin harremanetan jartzen lagundu duelako. Horretaz gain, galdetegi fisikoen kudeaketa (non banatu galdetegiak, non kokatu jasotzeko buzoiak, difusio eta komunikazioa, behin epemuga itxita galdetegiak jasotzea...) udalaren eskutik egin da. Bestalde, proiektuari hasiera emateko prentsaurrekoa Basazabal Jauregian antolatu zen, zaintza mahaiko kideak inplikatur. Ekimen honen bidez proiektuaren berri emateaz gain, herritarrek inkestak betetzera ere gonbidatu eta animatu zituzten.

3.2.2 Parte hartzaileen profila

Diagnostiko kualitatibo honetan erabili den lan metodologia parte hartzailea izan da eta ahalik eta subjektu gehienek ikuspegia jasotzea bilatu da.


Parte hartzaileak, bost esfera nagusitan sailkatu dira:

- Esfera komunitarioa: herritarrek, herriko eragileak, tokiko merkataritza elkarteak...

- Esfera publikoa: udal sail ezberdinetako teknikariak, udaltzaingo burua eta Osasun saileko ordezkariak.
- Esfera pribatua: Zaintza-zerbitzu publikoak eskaintzen edo hornitzen dituzten erakunde zein entitateak.
- Esfera zaintzailea: Zaintzaile familiarak (Sendian programan parte hartzen duten familien ordezkariak) eta zaintzaile profesionalak (Familia inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoak langileak-FIZPE-).
- Zaintza beharrak dituzten pertsonen esfera: Etxez etxeko laguntza jasotzen duten onuradunak.

Esfera bakoitzeko eragile eta pertsonen profila oso anitza da, eta ondorioz informazio biltzeko metodologia eta tresna ezberdinak erabili dira. Era horretara, diagnostikoan ahalik eta pertsona gehienek parte hartzea ahalbidetuz.

Informazioa jasotzen joan garen neurrian, eragile batzuk beste eragile edo baliabide batzuetara iristeko bidea ireki dute, diagnostikoa etengabe elikatzen jarraituz. Modu honetan “ur jauzi efektua” delakoa garatu du, harremanetan jarri garen eragileek beste batzuk identifikatzea erraztu baitute. Guzti honek herri mailan zaintzen gaineko hausnarketa eta sentsibiltatea piztu eta herritarrak zein eragileak aktibatzea ekarri du berekin. Hurrengo eskema honetan laburbildu dugu diagnostiko kualitatiboa diseinatu eta garatzeko erabili den lan metodologia:



3.3 Informazioa biltzeko tresnak

Eragileak identifikatzearekin batera, haietara hurbiltzeko estrategiak eta informazio-bilketa egiteko tresnak diseinatu dira. Hiru tresna nagusi erabili dira: galdetegi itxia, Focus Group eta elkarrizketa erdi-egituratuak.

3.3.1 Galdetegi itxia

Galdetegi itxiaren bitartez Azpeitiko zaintzen eta zaintzen antolakuntzaren pertzepzioa jasotzea izan dugu helburu eta herritar zein eragile guztientzako ireki den galdetegia izan da (1. eranskina).

Galdetegi egituratu honek 23 puntu ditu. Horietatik 11 galdera itxiak dira; tartean, 9 puntuetan, ekarpen zabalagoak adierazteko aukera eskaintzen da, jarduteko moduei, baliabideei eta iradokizunei dagokienean. Gainera, bi galderatan 0 – 10 bitarteko puntuazioa jartzeko aukera dago, hauek gizarte zerbitzuen balorazioa egiteko alde batetik eta, bestetik, herritarren sentsibilizazioa baloratzeko; eta bukatzeko, azken 2 puntu daude edozein ideia, iradokizun edo kontaktu errazteko.

Tresna honen kasuan, online formatuan zein paperezkoan pasa da, pertsona eta herritar ororen parte hartze errazte aldera. Paperezko formatuari dagokionez, galdetegi bana bidali zen udalerriko etxe guztietara, eta udal eraikuntza zein herriko puntu ezberdinetan buzoia eta kutxetan entregatzeko aukera ere eskaini zen. Bestalde, online formatuan ere zabaldu da galdetegia, identifikatutako zerbitzu, eragile eta elkarte guztien artean.

3.3.2 Talde elkarrizketak – Focus Group

Talde elkarrizketak, *focus-group* formatuan gauzatu dira eta saioak dinamizatzeko ekintza eta galdera irekiz osatutako gidoi estruktura bat erabili da (2. eranskina).

Helburua, beren jardun pertsonal, sozial edo profesionalagatik, zaintzekin harreman zuzena duten pertsona edo eragile erreferenteekin (eragin handiko eragileak) elkarrizketa sakonago bat egitea izan da.

Focus Group metodologia bidez bideratu den talde elkarrizketak lau alor nagusi landu ditu:

- Zaintzekiko kontzepzioa, ikuspegia eta bizi-pena
- Zaintza politikak
- Zaintzen erantzun- kidesuna
- Azpeitiko Zaintza Ekosistemaren beharra

3.3.3 Elkarrizketa egituratua

Elkarrizketak, bakarka nahi taldeka egindakoak, galdera irekietan antolatutako gidoi egituratu batean oinarritu dira (3. eranskina) eta sakontasun maila handiagoa bilatu dute.

Beren jardun, erantzukizun edo garrantziagatik, modu profesional edo pertsonal batean Azpeitiko zaintzen errealitateak gertu egon daitezkeen pertsona esanguratsuei egin zaizkie elkarrizketak eta 16 elkarrizketa gauzatu dira guztira.

Lau ataletan sailkatu dira galderak:

- Zaintzekiko kontzepzioa edo ulkerak, ikuspegia eta bizipena
- Zaintza politikak
- Zaintzen erantzun- kidetasuna eta komunitatearen parte-hartzea
- Azpeitiko Zaintza Ekosistemaren beharra

3.3.4 Kontraste eta deboluzio saioak

Behin parte-hartzaileek emandako informazioa transkribatu eta jasotako ideia garrantzitsuenak sailkatu ondoren, diagnostikoaren txostena lehenik talde estrategikoan eta bigarrenik zaintza mahaian aurkeztu dira bertako parte- hartzaile guztiei. Espazio hauek izan dira kontrastatu, balidatu eta ideia garrantzitsuenak azpimarratzeko ahalmena izan dutenak. Lanketa hau egin ondoren, informazio guztia herriari zabalduko zaio antolatuko diren topaketa irekietan.

3.4 Aspektu etikoak

Aipatzekoa da diagnostikoaren prozesu guztian zehar, parte hartzaile guztien anonimitasuna bermatu eta parte hartzea boluntarioa izan dela.

3.5 Datuen analisisa

Atal honetan jasotako informazioaren analisisa egiteko bi metodologia nagusi erabili dira:

1. Batetik, “*Forms Formularios*” aplikazio informatikoaren bidez galdetegi itxietako erantzunak datu base batean zentralizatu dira. Galdetegi itxien egiturari esker eta aplikazioak berak ematen duen aukera aprobetxatuta, emaitzak modu kuantitatiboan jaso eta modu grafikoan irudikatu ahal izan ditugu.
2. Bestetik, elkarrizteka erdi-egituratu nahiz Focus Group talde elkarrizketetatik ateratako informazioa transkribatu, aztertu eta lau alor nagusitan sailkatu dugu.

Sailkapena, elkarriketak egituratzeko erabili diren ardatzen baitan egin da. Elkarriketak ustiatzeko eta transkripzioak egiteko bi modu ezberdin erabili dira. Alde batetik, elkarriketetan bertan azpimarratutako ideia garrantzitsuenak eskuz jaso dira eta bestetik, grabazioen transkribapena automatikoa egiteko "Amberscript" aplikazioa erabili da.

3.6 Kronograma

Azpeitiko Zaintza Ekosistema												
Diagnosticako kualitatiboaren kronograma												
Zereginak	Urt	Ots.	Mar.	Ap.	Mai.	Ek.						
Talde estrategikoa osatu. Planifikazioa	X	X	X	X	X			X		X		
Tresnen diseinua (Galdetegia eta elkarriketa)	X	X	X									
Pertsona eta eragileen identifikazioa. Kontaktuen zerrenda	X	X	X	X	X							
Komunikazioaren planaren diseinua	X	X	X	X								
Komunikazioa (eskutitza eta mailing.)				X	X							
Elkarriketak burutzea					X	X	X					
On line galdetegia irekita					X	X	X					
Diagnosticako kualitatiboko txostenaren erredakzioa						X	X	X	X	X	X	X

4 PARTE HARTZE MAILA

Atal honetan, era batera edo bestera diagnostiko kualitatiboan parte hartu duten eragile eta norbanakoen gaineko informazioa jaso dugu.

4.1 Galdetegi itxia bete duten herritar kopurua eta profila


Galdetegi itxia paperean edo online betetzeko aukera eskaini da eta ahalik eta pertsona gehienek betetzea bilatu da. Horretarako, hainbat difusio kanal erabili dira:

- Buzoneoa: Azpeitiko etxe guztietara bidali zen prentsaurrekoa egin ondoren, hau da, apirilaren 1etik aurrera, triptiko formatuan. Bertan, proiektua azaltzen zuen ohar informatiboa eta QR kode bat atxikitu zen nahi duenak zuzenean bakoitzaren mugikorretik bete ahal izateko. Herritarrek galdetegi itxia beraien etxeetan lasai betetzeko aukera izan dute eta ostean, jasotze puntu ezberdinak jarri dira herritarrek galdetegi beteak entregatu ahal izateko.
- Jasotze puntuak: Galdetegiak jaso eta betetzeko puntu hauek, buzoietara etxez etxe bidalitako galdetegiak jasotzeko ez ezik, herriko espazio estrategikoetan kokatu dira, herritarrek bertan galdetegiak bete eta entregatzeko aukera izan dezaten.
- Posta elektronikoa: Posta elektroniko bidez herri eragile, entitate eta udal sail ezberdinen artean zabaldu da galdetegi itxia.
- Sare sozialak: *Udaletxearen plataforma ofizialean formatu digitalean txertatzeaz gain, Whatsapp* sare sozialaren bidez galdetegia ahalik eta gehien zabaltzeko mezu bat ere prestatu zen. Era horretara, mugikorretik modu azkar batean galdetegia online betetzeko erraztasunak eskainiz.

Inkestak bete ahal izateko, 39 eguneko tarte eskaini zen eta guztira, **233 pertsonak erantzun dute**.

Hurrengo taulan galdetegi itxia erantzun duten pertsonen ezaugarri orokorrak eta zenbatekoak jaso ditugu:

Galdetegi itxia		
Parte-hartzaile kopurua		
233 pertsona		
Generoa		
Gizonezkoa:	Emakumezkoa:	Ez bitarra:
66 pertsona (%28)	164 pertsona (%70)	3 pertsona (%1)




Udalerria

Azpeiti: 209

Beste bat: 24

Adin-tartea

16-24 urte: 9	55-64 urte: 41	85 ≥ urte: 2
25-34 urte: 15	65-74 urte: 62	Beste bat: 0
35-44 urte: 30	75-84 urte: 23	



Parte-hartzaileen artean adin tarte ugaritako jendea dago. Gehiengoa 65-74 urte bitartekoak dira, 62 pertsona (%27). Ondoren datoz 55-64 urte artekoak, 51 pertsona (%22), eta 45-54 urte artekoak, 41 pertsona (%18). 35-44 urtekoak 30 dira (%13), 25-34 urtekoak 15 (%7), eta 16-24 urtekoak 9 pertsona (%4). 75-84 urte bitartekoak 23 pertsona dira (%10), eta 85 urtetik gorakoak 2 (%1).

4.2 Talde elkarrizketetan parte hartu duten pertsona eta eragile

kopurua eta beraien profila

Tresna metodologiko hau erabilia guztira **47 pertsona elkarrizketatu ditugu** 2025eko apirilaren 3tik maiatzaren 16ra. Nahiz eta guztira 16 eragile ezberdinekin egon garen, kasu batzuetan, eragile nahiz elkarte berdineko kide batekin baino gehiagorekin elkartu gara. Gainera elkarrizketa batzuetan eragile ezberdinak elkartu ditugu (baliabide prebentiboen kasuan, adibidez).

Informazioa biltzeko espazioa Azpeitiko Gizarte Zerbitzuak dituzten bulegoa izan da, eragile batzuen kasuan, haien dinamikak aurrera eramaten dituzten espazio naturala izanik. Elkarrizketak eragileen espazio propioetan egiteak, batetik beraien ingurua ezagutzeko aukera ematen digu, eta era berean, elkarrizketatuak erosoago sentitu ahal izan dira.

Elkarrizketatuen profilari erreparatuz gero, generoari dagokionez, 31 emakume elkarrizketatu dira, eta 11 gizonezko. Nabarmentzeko datua da honakoa.

Hala ere, hurrengo taulan jaso ditugu parte hartze datu orokorrak:

Elkarrizketa erdi egituratua – Talde elkarrizketak		
Talde elkarrizketa kopurua		
11 talde		
Parte hartzaileak (Pertsona kopurua eta eragile kopurua)		
47 eragile/subjektu		
Generoa		
Gizonezkoak: 11	Emakumezkoak: 31	Ez-bitarrak: 0
Esferak eta taldeak		
2. Esfera publikoa:	- Udal teknikarien taldea - Gizarte zerbitzuen taldea - Osasun saila	
3. Esfera pribatua:	- Baliabide prebentiboak (1. Taldea): ○ Lahar elkargoa ○ Nagusilan ○ Adinkide	

	- Baliabide prebentiboak (2. Taldea - Biharko) - o Apartamentu tutelatuak - o Etxez- etxeko laguntza - o Eguneko zentroa - o Koordinazioa - Mugat Elkartea
4. Esfera komunitarioa:	- Baigera Jubilatuen elkarte - Urrestilla Jubilatuen elkarte - Farmaziak - Merkataritza - o Merkataritza elkarte - o Hobetuz- Ortopedia denda
5. Esfera familiarra/ Zaintzaileak:	- PECE etxeko zaintzaileak

4.3 Elkarriketa indibidualetan parte hartu duten pertsona kopurua eta profila

Elkarriketa egituratuari dagokionez, Azpeitiko 5 pertsona edo eragile ezberdinekin bakarkako elkarriketak egiteko aukera izan dugu. Eragile hauen artean, Sendian programan parte hartzen duen zaintzaile familiarra, Caritas, edota egoera ezberdinak bizitu dituzten pertsonak elkarriketatatu ditugu.

Informazioa biltzeko, eragileen espazio propioetara gerturatzen saiatu gara gehien bat, izan ere, beraien erosotasuna bermatzeaz gain, beraien testuingurua hobeto ulertzen laguntzen digulako. Izan ere, kasu batzuetan Azpeitiko Gizarte Zerbitzuetako bulegoa erabili izan dugu.

Hala, guztira 5 bakarkako elkarriketa egin ditugu.

Elkarriketa erdi egituratua – Talde elkarriketak
Elkarriketa kantitatea
5 elkarriketa

Parte hartzaileak		
5 pertsona		
Generoa		
Gizonezkoak: 1	Emakumezkoak: 4	Ez binarioak: 0
Esferak eta taldeak		
Esfera Publikoa:	- Kiroldegiko arduraduna	
Esfera komunitarioa:	- Caritas	
Esfera pribatua	- Egoitza	
Familiarren esfera:	- Sendian programako parte- hartzailea	
Zainduen esfera	- Etxez- etxeko laguntzako onuraduna	

5. JASOTAKO INFORMAZIOAREN ANALISIA


5.1 Galdetegi itxien bidez jasotako informazioaren analisia

Ondoren, galdetegi itxiaren (Eranskina 1) bidez jaso diren emaitzak aurkeztuko dira:

Parte-hartzaileak


Parte-hartzaile kopurua: 233 erantzun

1. Zein generorekin identifikatzen zara?



Parte-hartzaileen gehiengoa emakumezkoa da: 164 pertsona (%70). Gizonezko gisa identifikatu dira 66 pertsona (%28), eta 3 pertsonak (%1) nahiago izan dute ez erantzun. Ez da izan ez-bitarra edo beste genero batekin identifikatu denik.

2. Gaur egun Azpeitin bizi zara?




Parte-hartzaileen gehiengoa, 209 pertsona (%90), gaur egun Azpeitin bizi dira. Bestalde, 24 pertsonak (%10) adierazi dute Azpeititik kanpo bizi direla.

3. Zein da zure adin tartea?

Adin tartekak

16-24 urte artekoa	9
25-34 urte artekoa	15
35-44 urte artekoa	30
45-54 urte artekoa	41
55-64 urte artekoa	51
65-74 urte artekoa	62
75-84 urte artekoa	23
85 urte edo gehiago	2
Otras	0




Parte-hartzaileen artean adin tarte ugariakoa jendea dago. Gehiengoa 65-74 urte bitartekoak dira, 62 pertsona (%27). Ondoren datoz 55-64 urte artekoak, 51 pertsona (%22), eta 45-54 urte artekoak, 41 pertsona (%18). 35-44 urtekoak 30 dira (%13), 25-34 urtekoak 15 (%7), eta 16-24 urtekoak 9 pertsona (%4). 75-84 urte bitartekoak 23 pertsona dira (%10), eta 85 urtetik gorakoak 2 (%1).

4. Ondorengo eskala honetan, zenbateko garrantzia daukatela uste duzu zaintzek gizartearen ongizatean?




Zaintzek gizartearen ongizatean duten garrantziaz galdetuta, parte-hartzaileen gehiengoak —177 pertsona (%74)— garrantzi handia dutela uste du. 51 pertsonak (%22) garrantzi ertaina eman diete, eta 5 pertsonak (%2) uste dute garrantzi txikia dutela.

5. Gaur egungo politika publikoak zaintzei lotutako erronkei aurre egiteko prestatuta daudela uste duzu? (hazkunde demografikoak, familia ereduaren aldaketa...)



Parte-hartzaileen gehiengoak, 163 pertsonak (%70), uste dute gaur egungo politika publikoak ez daudela behar bezala prestatuta zaintzei lotutako erronkei aurre egiteko. 49 pertsonak (%21) uste dute baietz, eta 21 pertsonak (%9) beste erantzun batzuk eman dituzte edo ez dute argi adierazi.


6. Eta komunitatea? (adibidez: bizilagunak, merkatariak, lagun taldeak, herriko elkarteak, herri mugimenduak...)



Komunitateak zaintzei lotutako erronkei aurre egiteko prest dagoen galdetuta, 147 pertsonak (%63) uste dute ezetz. 52 pertsonak (%22) uste dute komunitatea prest dagoela, eta 34 pertsonak (%15) beste erantzun batzuk eman dituzte edo ez dute argi adierazi.

OHARRA: Galdera hau euskarazko galdetegiaren bertsio fisikoan ez zen agertu. Horren ondorioz, galdera horri erantzun ezin izan dioten pertsonen "beste erantzun bat" aukera esleitu zaie, eta horrek emaitza partzialki baldintzatzen du.

7. Eta familiak?



Familiak zaintzei lotutako erronkei aurre egiteko prest dauden galdetuta, 149 pertsonak (%64) uste dute ez daudela prest. 61 pertsonak (%26) uste dute baietz, eta 23 pertsonak (%10) beste erantzun batzuk eman dituzte edo ez dute argi adierazi.

8. Badaukazu zaintza beharrak dituen hurbileko pertsonarik?



Parte-hartzaileen erdiak baino gehiagok, 136 pertsonak (%58), adierazi dute zainketa beharrak dituen hurbileko pertsonarik dutela. 93 pertsonak (%40) ezetz erantzun dute, eta 4 pertsonak (%2) beste erantzun batzuk eman dituzte edo ez dute argi adierazi.


9. Zure kasuan, zaintzarik behar duzu?

10. Eta uste duzu, bizitzako momenturen batean zaintza beharrak izan/izango dituen pertsona bat izan zaitezkeela?




Parte-hartzaileen gehiengo argiak, 217 pertsonak (%93), uste dute bizitzako noizbait zaintza beharrak izango dituzten pertsona izan daitezkeela. 7 pertsonak (%3) ezetz erantzun dute, eta 9 pertsonak (%4) beste erantzun batzuk eman dituzte edo ez dute argi adierazi.

11. Zure ustez, Azpeitiko Udalak gaur egungo zaintza-beharrei ondo erantzuten die?



Parte-hartzaileen artean, 91 pertsonak (%39) uste dute Azpeitiko Udalak ondo erantzuten diola zaintza-beharrei. Bestalde, 69 pertsonak (%30) uste dute ezetz, eta 73 pertsonak (%31) beste erantzun batzuk eman dituzte edo ez dute argi adierazi.

12. Garatzen diren udal-politikek, pertsonen beharrak kontuan hartu, erdigunean jarri eta lehenesten dituztela uste duzu?



Parte-hartzaileen artean, 103 pertsonak (%44) uste dute udal-politikek pertsonen beharrak kontuan hartzen dituztela eta lehenesten dituztela. 100 pertsonak (%43) kontrakoa pentsatzen dute, eta 30 pertsonak (%13) "beste aukera bat" erantzun dute.

13. Zure ustez, Azpeitiko Udalak gaur egungo zaintza-beharrei ondo erantzuten die?



Parte-hartzaile gehien-gehienek, 221 pertsonak (%95), uste dute ikuspegi partekatu eta integratu horretatik helduz gero zaintza-beharrei, onuragarria izango litzatekeela. 12 pertsonak bakarrik (%5) uste dute ez lukeela onurarik ekarriko.

14. Azpeitiko herritar eta bizilagunek, jarrera eta ardura zaintzaileak hartzeko ohitura dutela uste duzu? (bizilagunen artean, bakardade egoeren aurrean, zaintza emozionalean, jendearen integrazio komunitarioan...)




Galdera honen aurrean, 130 pertsonak (%56) uste dute Azpeitiko herritarrek ez dutela zaintzaren inguruko jarrera eta ardura aktibo nahikorik. Aldiz, 103 pertsonak (%44) uste dute baietz, herritarrek halako jarrerak hartzeko joera dutela.

15. Eskala horretan, nola baloratuko zenuke Azpeitiko herritarrek zaintzen inguruan duten sentsibilizazio maila?



Azpeitiko herritarren zaintzarekiko sentsibilizazio mailari dagokionez, 145 pertsonak (%62) sentsibilizazio maila baxua dutela uste dute. 81 pertsonak (%35) sentsibilizazio ertaina dutela adierazi dute, eta soilik 7 pertsonak (%3) baloratu dute sentsibilizazio maila altutzat.

16. Ezagutzen duzu Azpeitian zaintzak sustatzen dituen auzo/komunitate jarduerarik?



Parte-hartzaileen gehiengoak, 160 pertsonak (%69), ez du ezagutzen Azpeitian zaintzak sustatzen dituzten auzo edo komunitate jarduerarik. 69 pertsonak (%30) baietz erantzun dute, eta 4 pertsonak (%1) "beste aukera bat" erantzun dute.

17. Hala bada, zein?

Anonimoa: Eguneko zentroa eta udalak ematen dizkigun serbitzuak

Anonimoa: Centro de Día

Anonimoa: Voluntariado

Anonimoa: Personas anónimas

Anonimoa: Yoga

Anonimoa: Adinkide

Anonimoa: Por ejemplo azpeitia ibili me facilita conocer y relaciones con gente

Anonimoa: Pues todas las actividades que fomenta BAIGERA

Anonimoa: C.D voluntariado ETC

Anonimoa: Nagusilan, Baigera

Anonimoa: Nagusilan-eko boluntarioak.

Anonimoa: Yoga para personas mayores, o servicio a domicilio

Anonimoa: Ayuda a los que viven solos.

Anonimoa: Voluntariado en la residencia

Anonimoa: Voluntarios, C.dia,SAD, etc.

Anonimoa: Salir de paseo por la mañana

Anonimoa: Nagusilan Txolarte

Anonimoa: Elkar-ekin

Anonimoa: Elkar ekin

Anonimoa: San Martin egoitzara modu sistematizatuan joaten den taldetxoa, baino jende gutxi eta gutxituz. Aiton-amona aktiboentzat aukera bikaina baina bilobak zaintzen dituzte askorek.

Anonimoa: Enkarguk

Anonimoa: Ludotekako adinekoen elkartzea

Anonimoa: ADINKIDE

Anonimoa: Egoitzara bisitan joaten diren bolondresak

Anonimoa: Sesiones de grupos

Anonimoa: NAGUSILAN

Anonimoa: Baserritan ematen dena

Anonimoa: Azpeiti Ibili Propaganda, Txolarte

Anonimoa: Txolarte

Anonimoa: Mugat

Anonimoa: Auzo txikiak

Anonimoa: Los voluntarios

Anonimoa: Boluntariotza Adinkide

Anonimoa: Lagunkide

Anonimoa: Adinekoen pasiera

Anonimoa: Asociación de jubilados

Anonimoa: San Martin egoitzako bolondresak

Anonimoa: Adinkide, osasun pastoralta

Anonimoa: Jende helduarentzat jarduerak egiteko aukerak

Anonimoa: Elkar- ekin, jubilatuen elkarteak, eskolak...

Anonimoa: Nagusilan

Anonimoa: Zaharrei lagundu kalera ateratzen

Anonimoa: En residencias

Anonimoa: Ludoteka/ eguneko zentrua

Anonimoa: Adinkide, Baigera...

Anonimoa: Gaixo bati bisitak egin

Anonimoa: LA

Anonimoa: Cursillo de cuidados a mayores

Anonimoa: Eliza garbitzea, Gimnasia

Anonimoa: Tipi-tapa

Anonimoa: Herri txikietan auzokideak

Anonimoa: Atzegi


Anonimoa: Etxez etxeko zaintza

18. Zure kasuan, inoiz hartu duzu parte jarduera hauetan?




Galdera honi erantzun diotenetatik, 36 pertsonak (%51) adierazi dute ez dutela parte hartu halako jardueretan. 34 pertsonak (%49) baietz erantzun dute, hau da, inoiz parte hartu dutela zaintzak sustatzen dituzten auzo edo komunitate jardueretan.

19. Inoiz hartu duzu zure familiakoa edo ingurukoa ez den pertsona bat zaintzeko ardurarik? (adibidez: bizilaguna, adinekoa, mugikortasun murriztua duen pertsona, bakardade egoeran dagoen pertsona...)




Parte-hartzaileetatik 121 pertsonak (%52) adierazi dute ez dutela inoiz hartu halako zaintza-ardurarik. 83 pertsonak (%36) baietz erantzun dute, eta 21 pertsonak (%9) ez dutela inoiz egin, baina pentsatu izan dutela. Beste 4 pertsonak (%2) "beste aukera bat" erantzun dute.

20. Azpeitik Zaintza-Ekosistema baten beharra duela uste duzu?



Parte-hartzaileen ia guztiek, 221 pertsonak (%95), uste dute Azpeitik Zaintza-Ekosistema baten beharra duela. 6 pertsonak bakarrik (%3) adierazi dute ez dutela hala ikusten.

21. Gustatuko litzaizuke bertan parte hartzea?



Zaintza-Ekosistema baten garapenean parte hartzea gustatuko litzaieke 147 pertsonari (%63). 68 pertsonak (%29) ez dute horretan parte hartzeko asmorik adierazi.

22. Gustatuko litzaizuke horren inguruko iruzkin, iradokizun edo ekarpenik egitea?

Erantzunak:

Anonimoa: " Ez nuke nahi erakundeen itxurak egite hutsean geratzea ekimen hau. Jendearen, komunitatearen erantzunaz aparte erakundeen benetako inplikazioa eta proiektuarentzako eskumen ekonomikoak ere behar baitiradeen

Anonimoa: Eskerrak eman jasotzen dugun laguntzagatik

Anonimoa: Me gustaría qué las citas con la asistente social sea más rápido y qué haya un seguimiento de la persona necesitada.Como va un control.Y no tantas pegas.

Anonimoa: Se podría poner en marcha un banco del tiempo para ayudarnos entre nosotros

Anonimoa: Hace poco fui, para informarme de contratar ayuda domiciliaria a la oficina de Hobetuz, y nos cobraron 30€ por solo informarnos en media hora.

Anonimoa: Que el ayuntamiento revise todos los contratos que se realicen en azpeitia para cuidar personas

Anonimoa: Iruditzen zait komenigarria izango litzatekela laguntza berezi edo zerbitzu bat ondo atolatutakoa sortzea, bere etxean zaintzea nahi dutenen pertsonen artean. Orain arte ikusten dudana eta neri tokatu zitzaidana da kanpotar langileen laguntza kontratatzen dela, hau da "interna" bezala izatea langilea zure etxean behar duzun zaintza lortzeko. Hizkuntza eta kultura zeharo ezberdinak direlako zaintza behar duen pertsona ez da askotan oso eroso sentitzen (euskara ez jakitea adib.) Aparte kontratatu nahi izanez gero bertako profesionalak oso garestia irtetzen du (orduzka, aste buruak eta jaiak barne), zaintza hau 365 * 24h izaten da gehinetan. Posible izango litzateke talde profesional publiko bat sortzea zerbitzu hauek bermatzen dituen edo laguntzak jasotzea horrelako zerbitzu bat jasotzeko???

Anonimoa: De momento no tengo tiempo porque estoy dedicando tiempo a los nietos pero algún día porque no !!!

Anonimoa: Más adelante podría aportar

Anonimoa: Es necesario sensibilizar a la comunidad y tome parte

Anonimoa: Baliteke epe erdi motzean ni azpeitin ez bizitzea.

Anonimoa: Eskuorrian banatutako galdetegia eta web idezkoa ez dira guztiz berdinaak. Noiz erretiratu dira buzo edo kutxak, gaur maiatzak 5 da eta ez dut bat bera ere aurkitu kalean.

Anonimoa: Es lamentable que en los vehículos omologados para las personas con movilidad reducida prohíban andadores y no tengan un sistema de anclaje automatizado para silla de ruedas.si algún día hay un incendio en la furgoneta es imposible soltar la silla de ruedas

Anonimoa: Sensibilizar a la gente.Colegios etc.

Anonimoa: Aurrera joan ahala eta inguruko egoerak ikusiz sentsibilizatzea gara

Anonimoa: Bakarrik adieraztea nire erantzunak kontrajarriak iruditu arren, etxean 98 urteko adinekoa dudala eta horregatik ezin dudala parte hartu. Eguneke zentroaren aukera izugarria da eta bat baino gehiago edo handiagoa egon beharko luke. Frogako egun ireki batzuk izatea

Anonimoa: La ciudadanía de Azpeitia tendría que tener un poco más claro en que constan las ayudas a las que pueden acceder y en que constan .

Anonimoa: Me gustaría participar pero no vivo en Azpeitia

Anonimoa: Egiten ari zareten zaintzaren ekosistema garatzea ezinbestekoa da, piramidea alderantziz izango dugulako. Eta horretarako, zaintzak erdigunean izango ditugun ekosistema sendo bat behar dugu.

Anonimoa: Ezinbesteko beharra gizarte moduan

Anonimoa: Etxez etxe, gai honi buruzko informazioa bidali

Anonimoa: Más rapidez en las decisiones

Anonimoa: Creo que las personas que trabajan con personas mayores no están lo suficientemente valoradas, pero también hay algunos que no vale la pena su trabajo

Anonimoa: Mejorar las condiciones de los trabajadores de residencia, centro de día y más personal para una mejor atención.

Anonimoa: Jendeak zaintzan parte handi bat hartzen ez badu, arazo larri-larri bat etorriko zaigu gainera! eta geu izango gera biktimak, geu denok!

Anonimoa: Behar ditugun laguntzak azkartu, erreztu eta abar...

Anonimoa: Podría enseñar las ayudas técnicas que hay en el mercado.

Anonimoa: San Martin egoitza dagoen lekuan mantendu. Herrian bertan, kaleko bizitza gertu. Ingurua txukundu

Anonimoa: Zaintza programa eta ekimenak HOBETO ezagutarazi eta indartu.

Anonimoa: Nire adinagatik zaila zait ekarpena egitea. Zaila edo ezinezkoa.

Anonimoa: oso zaila ikusten det, oso berekoi bihurtu gea. ideala bai

Anonimoa: oraindik asko dago egiteko zaintzen inguruan

Anonimoa: herritarrei aukera erremunerautekoa izatea

Anonimoa: Publikotasuna galtzen ari denez, hori berreskuratzea ezinbestekoa da

Anonimoa: Elkar ondo zaintzearen beharra dugu denok. Ekin beharra

Anonimoa: La ciudadanía debe conocer las estadísticas de peronas mayores y las presiones a futuro

Anonimoa: Debe de haber más actividades

Anonimoa: Parte hartuko nuke baina denbora falta. Lana tabernan egiten dut eta gurasoak zaintzen ditut. Nirekin bizi dira eta 90 urte dituzte.

Anonimoa: Espabilau

6. BANAKAKO ELKARRIZKETA ETA TALDE ELKARRIZKETEN BIDEZ

JASOTAKO INFORMAZIOAREN ANALISIA

Informazioaren analisia, hurrengo 4 alor nagusitan sailkatu da:

- A. Blokea: Zaintzaren gaineko kontzepzioa edo ikuskera
- B. Blokea: Zaintza politikak
- C. Blokea: Zaintzekiko sentsibilizazioa eta erantzun- kidesuna
- D. Blokea: Zaintza ekosistema baten behararen gaineko ikuspegia

Alor bakoitzaren inguruan esfera bakoitzeko norbanako eta eragileek galdetegia itxiaren, bakarkako elkarrizketa edota talde elkarrizketen bidez adierazi dutena jaso da.

A. BLOKEA: Zaintzen gaineko kontzepzioa edo ikuskera

a) Esfera publikoa

Esfera publikoan egindako elkarrizketetan zaintzaren ulermena zabala eta anitza dela agerian gelditu da. Zaintza fisikoaz haratago doana, zaintza beste eremu batzuetara hedatzen duen ikuspegia, alegia. Haien esanetan: “zaintzak gauza sinpleak ere badira: agurtzea norbait kaletik, bizilagunekin arduratzea...”. Hauek, harremanekin ere lotzen dituzte: “erlazioak izatea, niri zaintza iruditzen zait hortik hasi behar duela” dimentsio sozial bat emanez. Aipagarria da, zaintzak modu estruktural eta zeharkakoan eskaini daitezkeela aitortzen dela: “ Kirolaren departamentua oso inportantea da” edo “hirigintzatik nola diseinatzen den herria klabea da”.

Elkarrizketatuek azpimarratzen dute zaintzak bizitza osoan zehar beharrezkoak direla: “zaintza ibilbide handiko zerbait da” edo “jaiotzen garenetik, hil egin arte” aipatuz. Horrez gain, ez dute zaintza une jakin batera mugatzen, baizik eta haratago doaz: “ez gaixotasun momentuan bakarrik, baizik eta edozein momentuan”. Ondorioz, ez dituzte zaintzak menpekotasunari mugatzen.

Generoari dagokionez, desoreka nabarmena agerikoa dela diote elkarrizketatuek. Beti azpimarratzen da zaintza ardurak, nagusiki, emakumeen gain erortzen direla: “zaintza hitza aipatzen dugunean emakume bat agertzen zaigu alboan” edo “orain arte ez dira lan bezala ulertu, lanbide bezala ulertu direnean nahiko prekarizatuak bihurtu dira” eta “emakumeak lanean hasi direnean ez da berrantolaketa bat eman, emakumeak kanpoan lan egiten ari dira eta etxe barruan ere”. Zaintza profesionalean ere, feminizazioa nabaria dela diote: “Ez da kasualitatea erizaintzak ere genero femeninoa izateak”.

Komunitateari garrantzi handia ematen zaio nahiz eta, haien iritziz, bidea oraindik egiteko dagoen. Bestalde, erakunde publikoek bakarrik ezingo dutela erronka honi aurre egin esaten da, hortaz, komunitatearen inplikazioa beharrezkoa dela esateaz gain elkarrizketatuek autokritika eta ardura bereganatzen dute, haien hitzetan: “komunitarioan asko dago eraikitzeko”, “honi aurre egiteko komunitatean beharra dago” edo “lotura publiko- komunitarioa beharrezkoa dela eta, lehenengo eta behin gugandik ere txip aldaketa bat egin behar dugula”.

Azkenik, elkarrizketatuen artean zaintzaren krisiaren kontzientzia nabaria da. Zentzu honetan, emakumeen laneratzeak, familia ereduen eraldaketak, erakunde publikoen egokitzapen beharrak eta belaunaldien arteko itunaren hausturaren ondorio nagusietako bat dela aipatzen da: “familia ereduak aldatzen ari dira eta hori ere nabari da, aldaketa bat ematen ari da”, “ez gaude prest gure ongizate pertsonala alde batera uzteko” edo “gu ez gaude prest gure gurasoak bezala gure bizitza guztia hipotekatzeko” besteak beste.

b) Esfera pribatua

Esfera pribatuaren iritzia arabera, zaintza ez da jarduera tekniko edo instituzional hutsa, eguneroko bizitzan txertatutako harreman-modu bat baizik, dimentsio fisikoa, emozionala eta soziala uztartzen dituen. Zaintza, haien esanetan, “dena da”, eta “egunerokoan eta harremanetan txertatuta” egon behar du. Hori dela eta, zaintza ez zaie soilik mendekotasun egoerei lotzen. Zaintza bizitzaren etapa guztietan presente dagoen behar bat da.

Zaintzaren definizioan, ikuspegi pertsonalizatuaren beharra azpimarratzen da. Parte-hartzaileek salatzen dute zaintza sistemak oraindik osasun arloko logiketan oinarritzen direla, eta horrek pertsonen ohiturak, nahiak eta bizi-proiektuak bigarren planoan uzten dituela. Adibidez, egoitza batean bizi den emakume batek meza entzutera joateko duen nahia atzeratu egin ohi da, “erori edo hipogluzemia bat egingo ote duen beldurrak eraginda”, eta horrek erakusten du zaintza emozionalaren eta sozialaren dimentsioak ez direla behar bezala kontuan hartzen.

Zaintza mota ezberdinen artean, zaintza emozionalaren gabezia nabarmena da. Elkarrizketatu batek adierazi duenez, “zaintza emozional hori ez da eskaintzen”, eta sistemaren errentagarritasun logikak zaintza prozesuak azkartzera bultzatzen ditu: “Anttoni gaur hil, eta ahal baldin bada, bihar ohea okupatu behar da”. Zaintza emozionala, beraz, “beste plano batean” kokatzen da, eta langileek beraiek ere ez dute beti baldintza egokirik zaintza afektiboa eskaintzeko.

Zaintza prebentiboaren gabezia ere azpimarratzen da. Elkarriketatuen arabera, gaur egun “gehiago gaude ‘apagando fuegos’”, eta zaintza prebentiboa ez da barneratu, ez sistemetan, ezta gizartean ere. Prebentzioaren ordean, zaintza erreaktiboa nagusitzen da, eta horrek zaintza sistemaren jasagarritasuna kolokan jartzen du.

Zaintza lanen banaketari dagokionez, generoaren arabera desoreka estrukturala agerian geratzen da. Parte-hartzaileek aitortu dute zaintza lanak, bai esparru profesionalean (egoitzetan, etxez etxeko laguntzan...), bai boluntariotzan, nagusiki emakumeak arduratzen direla: “Boluntariotzan ehuneko laurogeita hamar emakumeak dira”, eta “ez da kasualitatea emakumeak izatea zaintzan daudenak”. Gainera, zaintza emozionalaren ardura ere emakumeengan pilatzen dela azpimarratzen da, eta horrek zaintza lanen banaketa ez parekidea berresten du: “Gizonak mendi karrera batera apuntatzen dira, eta ez dute egutegia begiratu beharrik... guk ematen diegu aukera gehiago”.

Zaintza profesionalaren esparruan, paternalismoaren arriskua ere aipatzen da. Elkarriketatu batek dioenez, “zaintzatik paternalismora” igarotzen den marra gorri bat existitzen da, eta horrek zaintza ulertzeko modua baldintzatzen du: “Nik zainduko zaitut, nik dakidalako zer den zuretzako ona” jarrerak ez dira zaintza egokia, baizik eta kontrolaren edo inposizioaren forma bat.

Azkenik, bilakaera demografikoak eta familia egituren aldaketak erronka handitzat jotzen dira. Parte-hartzaileek zaintza krisi baten kontzientzia argia erakutsi dute, eta etorkizuneko eskaerei aurre egiteko gaitasuna zalantzan jarri dute: “Gaurko estrukturarekin, nik ezetz esango nuke”. Familia egituren aldaketa, seme-alaba gutxiago izatea eta gizartearen indibidualizazioa zaintza sare tradizionalen ahultzearekin lotzen dira, eta horrek zaintza sistemaren jasagarritasuna mehatxatzen du.

Laburbilduz, esfera pribatuan zaintza ulertzen da dimentsio anitzeko prozesu gisa, baina praktikan oraindik erronka handiak daude: zaintza emozionalaren eta prebentiboaren gabezia, genero-desoreka, paternalismoa eta egiturazko aldaketa sozial eta demografikoek zaintza sistemaren eraldaketa sakona eskatzen dute.

c) Esfera komunitarioa

Esfera komunitarioan jasotako diskurtsoek zaintzaren kontzepzio zabala eta multidimentsionala erakusten dute. Zaintza ez da ulertzen jardura tekniko edo instituzional hutsa bezala, baizik eta bizitzako etapa guztietan presente dagoen harreman-modu gisa. Parte-hartzaileek adierazi dute

“zaintzak oso zabalak dira... funtzionalitate arazoak, autonomia galera, emozionalki ere gorabehera ezberdinak...”, eta horrek erakusten du zaintza ez dela soilik mendekotasunarekin lotzen, baizik eta dimentsio fisiko, emozional eta sozialak uztartzen dituen esperientzia gisa ulertzen dela.

Zaintza ez zaio etapa jakin bati lotzen, baizik eta bizitzaren ibilbide osoan zehar agertzen den behar bat bezala. Zentzu horretan, zaintza eguneroko bizitzako jarrera eta keinu txikietan ere agertzen dela azpimarratzen da. “Zaintza da konfiantza, auzolana, babesa” bezalako esaldiek erakusten dute zaintza ez dela beti ikusgarria edo formalizatua, baina bai eraginkorra eta esanguratsua. Ongizatearen ikuspegitik, zaintza emozionala funtsezkotzat jotzen da, batez ere bakardade egoeretan edo adinekoen artean. “Zaintza da lasai bizitzeko modua” eta “babesa sentitzea... zure premia egoera horretan norbaitengana jotzeko aukera edukitzea” bezalako adierazpenek zaintzaren dimentsio afektiboaren garrantzia azpimarratzen dute.

Zaintza moten banaketari dagokionez, generoaren arabera desoreka estrukturalak nabarmen agertzen dira. Parte-hartzaileek aitortu dute “zaintza gehienak emakumeen gain erortzen direla” eta “oraindik barneratuta dagoela ideia hori: emakumeen lana dela”. Halaber, matxismoaren eragina ere aipatzen da: “matxismoa sartuta dagoelako, emakumeok ere barneratuta daukagu”. Hala ere, belaunaldi berrietan aldaketa batzuk sumatzen direla ere aipatzen da, nahiz eta oraindik rol tradizionalak mantentzen diren.

Azkenik, bilakaera demografikoak eta familia ereduaren aldaketak erronka handitzat jotzen dira. Parte-hartzaileek zaintza krisi baten kontzientzia argia erakutsi dute, eta etorkizuneko eskaerei aurre egiteko gaitasuna zalantzan jarri dute. “Gero eta gehiago gara zaharrak herri honetan” eta “hemendik hamabost urte barru jende gehiago egongo da ia artatu eta zaintza beharrak edukiko dituen” bezalako esaldiek erakusten dute zaintza sistemaren jasangarritasuna kolokan dagoela. Familia egituren aldaketa ere aipatzen da: “familia ereduak eraldatu da, seme-alaba gutxiago daude”, eta horrek zaintza sare tradizionalen ahultzea dakar.

d) Familiaren esfera

Zaintzaileen esferan, zaintzaren kontzepzioa esperientzia afektibo eta sozialetik eraikitzen da, eta ez da mugatzen jarduera funtzional edo teknikoetara. Zaintza definitzen da “presentzia” gisa, eta horrek harremanaren dimentsio emozionala lehenesten du: “zaintza da presentzia. Unean-unean laguntzea, konpartitzea, entzutea”. Zaintzaileek zaintza ulertzen dute ez soilik laguntza fisiko gisa, baizik eta pertsonen arteko konexioaren bidez eraikitzen den prozesu gisa.

Zaintza ez da etapa jakin batekin lotzen. Diskurtsoetan agertzen da zaintza bizitzaren etapa guztietan beharrezkoa dela, nahiz eta kontzientzia hori askotan beranduago garatzen den: “jaiotzetik jasotzen dira zaintzak, baina ez gara kontziente zahartzen garen arte”. Honek erakusten du zaintza ez dela soilik mendekotasunarekin lotzen, baizik eta bizitzaren osotasunari dagokion fenomeno dela.

Zaintzaileen esperientziak agerian uzten du zaintza mota ezberdinen arteko banaketa ez dela parekidea. Emakumeek daramate zaintza lanen zama nagusia, bai etxean, bai komunitatean, bai lan profesionalean: “Sendian taldean zortzi gara, eta denak emakumeak”. Gainera, generoaren arabera zaintza emozionala eta funtzionala ezberdin banatzen direla adierazten da: “zaintza emozionala eta funtzionala ez dira berdin banatzen generoaren arabera”. Horrek erakusten du zaintza lanen banaketa estrukturalak oraindik indarrean daudela, eta aldaketa sozial sakonagoak behar direla parekidetasuna lortzeko.

e) Zaintza beharrak dituzten pertsonen esfera

Azpeitian zaintza beharrak dituzten pertsonen zaintzak modu zabalean ulertzen dituzte. Arlo fisikoa kontuan hartzeaz gain, emozionalari ere garrantzi handia ematen zaio. Arreta emateko garaian modu maitekor eta zainduan egitearen garrantzia aipatzen da. Horretarako, zaintzak eskaintzen dituzten pertsonen haien lana gustukoa izatea beharrezkoa dela identifikatu da, horrek zaintza lanak burutzean eragin handia daukalako eskaintzen diren zaintzen kalitatean.

Zaintzak zer diren galdetzen zaienean iraganarekin alderatuz halakoa erantzuten da: “Beste goxotasun bat. Baina hartu- eman gehiago egoten zen. Orain hotza dago asuntua” .

Illo beretik aldagai hauek zaindua den pertsonarengan duten eragina dela eta, pertsonaren arlo emozionala lehenestea beharrezkoa dela esaten da. Zaintzailea eta zaindua den pertsonaren arteko binkulazio emozionalak ematen duen konfiantza maila eta babes sentimendua azpimarratzen dira. Hortaz, zaintzak gertutasun batetik jasotzea, bakoitzaren hizkuntzan, pertsona ezagunen eskutik... konfiantza eremua sortzeko baliagarria dela aipatzen da.

Zaintzaileen inplikazioa ere onura handiak ekar dezakeela zainduan egunerokotasunean nabarmendu daiteke: babesa, konfiantzazko harremana, lasaitasuna ematen baitute. Honela aipatzen dute: “...hemengoak ez daude lan hauek egiteko. Kanpoko jende asko dago eta. Ez da berdina. Edadeko pertsonentzat, ezagunekin egotea... ‘es vida’.”

Beste maila batean, familiarrek eskaintzen dituzten zaintzei dagokionez, familia ereduak izan duten aldaketaren ondorioetako bat zaintza beharrei erantzun egokia emateko ezintasuna dela

identifikatzen da. Familiak txikiagoak eta sakabanatuagoak daudela, bizitzaren erritmoak daukan inpaktua senitartekoen harremanetan... “Dena aldatu da”, “Lehen seme- alabak gurasoekin egoten ziren, orain ia ez...”

B. BLOKEA: Zaintza politikak

a) Esfera publikoa

Esfera publikoaren esanetan, zaintza beharrak ez dira soilik gizarte zerbitzuetatik erantzun behar; hortaz, ardura partekatua ikuspegia gailentzen da. Zaintza zeharka artatu beharreko afera da, eta horretarako beste udal sailak eta eragileak inplikatu behar direla ulertzen dute elkarrizketatuek: “bakoitzak bere eremutik, betiere zaintza perspektiba horretatik abiatua” Zaintzaren ikuspegia erabakietan, lanketan eta bultzatzen diren politiketan txertatu behar dela azpimarratzen da.

Burokraziaren pisuak duen eragina ere aipatzen da, oztopo garrantzitsuenetako bat bezala identifikatuz: “pisu burokratikoak direla eta pertsonengandik urrun geratzen gara”. Elkarrizketatuek autokritika eraikitzailea egitera iristen dira: “Nik uste herritarrak berak ere ez daukala oso argi, ez gizarte zerbitzuen helburua zein den” edo “sarea oso konplexua da” esanez.

Zerbitzu publikoen ezagutza eta irisgarritasuna dira kezka nagusietako batzuk. Kasu batzuetan, informazio faltari burokraziaren pisua gehitzen zaio, eta horrek sarbidea zailtzen du, babes-sistemaren eraginkortasuna murriztuz: “Ziurtagiri hori ezin dizut aplikatu, eta ezin duzu ordaindu, eta kanpoan geratzen zara” aipua horren adibide da.

Zaintzen krisiari dagokionez, modu bateratuan erantzuteko beharra antzematen da, eta, arestian aipatu den bezala, gai hau modu transbertsean artatu behar dela agerian geratzen da, haien hitzetan. “Beste sistema batzuekin elkarlanean egin ahalko genuke” esaldian zaintzen arloan dinamika publiko berriak sortzeko beharra azpimarratzen da. Hurrengo aipua, “politika integralak egin beharko dira honi erantzuteko” aurrekoa berresten du maila politikoarekin lotuz. Elkarrizketatu batek dioenez: “Momentu honetan koordinazio soziosanitarioa egitera ohituak gaude, baina egia esanda, beste departamentuekin ez daukagu ohiturarik (...) beste ikuspegi zabalagoa eduki beharko genuke”, eta horrek ere behar hori agerian uzten du.

Bestalde, zaintzen arloaren merkantilizazioaren arriskua aipatzen da: “Administrazio publikoek ez baldin badugu buelta handi bat ematen, merkatu pribatuak hartuko du pusketa handi bat, eta zaintzak, ongizatea, ahalmen ekonomikoaren menpe gera daitezke”. Hau erakunde

publikoen porrota izan ez dadin neurriak hartzera mugitzen ditu, elkarrizketatuek zaintzak modu unibertsalean eskaini behar direla defendatzen baitute.

Azkenik, zaintza-sistemaren funtzionamendua errektiboa dela salatzen da: benetako premia agertu arte ez da erantzunik ematen, edo onuradunek ez dute laguntzarik eskatzen. “Urgentziatzko zaintzak gailentzen dira. Prebentiboan hasten gara pentsatzen urgentzia aurreikusten denean”.

b) Esfera pribatua

Esfera pribatuan parte hartu duten eragileek zaintza politikekiko ikuspegi kritikoa baina eraikitzailea erakutsi dute. Elkarrizketatuen diskurtsoetan agerian geratzen da zaintza ez dela soilik gizarte zerbitzuen ardura, baizik eta udalaren beste sail askok ere —hala nola kultura, euskara, berdintasuna edo hirigintza— zaintzaren sustapenean parte hartu beharko luketela. Hala ere, ikuspegi hau ez da oraindik modu koordinatuan praktikara eramán, eta horrek erakusten du zaintza politikek oraindik ez dutela lortu ikuspegi transbertsal eta integratua garatzea.

Zerbitzu publikoen ezagutza eta irisgarritasuna dira kezka nagusietako batzuk. Parte-hartzaileek aitortu dute ez direla gai herrian dauden zaintza baliabide guztiak identifikatzeko, eta horrek erakusten du informazioaren transmisioan hutsune nabarmenak daudela. Elkarrizketatu batek adierazi duenez, “ez nintzateke gai izango mapa komunitario bat egiteko... horregatik eskatu diot Matia Fundazioari”. Informazio faltaz gain, zaintza sistemaren egiturazko gabeziak ere nabarmenak dira. Zerbitzuak ez daude behar bezala antolatuta, eta ez dago baliabide nahikorik komunitatea indartzeko. “Zaintza emozionala denona dela esaten dugu, baina asteburuetan ez dago inor”, salatu du parte-hartzaile batek, zaintza emozionalaren sistematizazio eza agerian utziz.

Zaintza sistemaren funtzionamendua, oro har, urgentziatzkoa dela nabarmentzen da. Baliabideak eta zerbitzuak gehienetan premia larria agertzen denean soilik aktibatzen dira, eta ez dago prebentzioaren aldeko kultura sendo bat. “Ez dut uste prebentziora jotzen dugunik... gehiago gaude ‘apagando fuegos’”, dio elkarrizketatu batek, zaintza prebentiboaren gabezia azpimarratuz. Horrek, gainera, zaintza sistemaren jasangarritasuna kolokan jartzen du, eta arreta ereduaren eraldaketa eskatzen du.

Bestalde, zaintza gero eta merkantilizatuagoa dela sumatzen da. Parte-hartzaileek adierazi dute zaintza ez dela behar bezala baloratzen eskubide sozial gisa, eta gero eta gehiago bihurtzen ari

dela negozio pribatu baten objektu. “Zaintza ez da baloratua, negozio bihurtu da”, adierazi dute, eta horrek zaintza publikoaren defentsa eta komunitarioaren sustapena premiazko bihurtzen ditu.

Testuinguru horretan, politika berrien beharra nabarmen azaleratzen da. Elkarriketatuen ustez, zaintza eskubide unibertsal gisa aitortu behar da, eta zaintza sistemaren antolaketa publiko eta komunitario baten aldeko apustua egin behar da.

Zaintza politikek lehentasunetan duten fokua ere aztergai da. Parte-hartzaileek adierazi dute gizarteak, oro har, arreta handiagoa eskaintzen diela gazteei eta umeei, adinekoen kaltetan: “Askoz ere atentzio handiagoa jartzen diegu gazteei edo umeei adinekoei baino”. Horrek erakusten du zaintza politikek oraindik ez dutela lortu adinekoen beharrei erantzun egokia ematea, eta ikuspegi intersektionalagoa eta bizitzaren ziklo osoa kontuan hartzen duen politika publikoen garapena beharrezkoa dela.

Ardura partekatua ikuspegia ere oso presente dago “Ez da instituzioen ardura bakarrik, ezta komunitatearena bakarrik ere”, dio elkarriketatu batek, eta horrek erakusten du erantzunkidetasunaren kultura bat garatu behar dela, non erakunde publikoek, komunitateak eta familiek elkarrekin jardungo duten. Hala ere, komunitateak bere rola bete ahal izateko, egiturazko baliabideak, prestakuntza eta koordinazio tresnak behar ditu: “Komunitateak ere ardura du, baina ez dago saretuta”.

Azkenik, elkarlana eta koordinazioa funtsezkotzat jotzen dira. Elkarriketatuen arabera, zaintza sistemaren eraginkortasuna hobetzeko, beharrezkoa da udal sailen arteko eta komunitatearen arteko loturak sendotzea. “Dena da konektore sozial edo zerbait dena lotuko duena”, adierazi dute, zaintza politikek ikuspegi integratuagoa behar dutela azpimarratuz.

Laburbilduz, esfera pribatuan zaintza politikekiko ikuspegi kritikoa eta eraikitzailea ageri da. Zaintza politikek zeharkako ikuspegia behar dute, eta zaintza emozionala, prebentzioa eta komunitatearen parte-hartzea sistematikoki txertatu behar dira. Elkarlana, koordinazioa eta informazioaren irisgarritasuna funtsezkoak dira zaintza politika eraginkorrak garatzeko.

c) Esfera komunitarioa

Esfera komunitarioan jasotako diskurtsoek erakusten dute zaintza politikekiko ikuspegi kritikoa baina eraikitzailea dagoela. Komunitatean elkarriketatuen iritziz, zaintzaren ardura udal sail

desberdinek bereganatu beharko lukete. Izan ere, hau oraindik ez dela ematen antzematen dute eta zeharkako ikuspegi integratuaren beharra azpimarratzen da.

Zerbitzu publikoen ezagutza eta irisgarritasuna, ere, haien kezketako bat da. Herritarrek adierazi dute askotan ez dakitela zer baliabide dauden, nola eskuratu edo nori zuzendu. “Jendeak ez daki zer eskaintzen den” bezalako adierazpenek erakusten dute informazioaren transmisioan hutsune nabarmenak daudela, eta horrek zerbitzuen erabilera baldintzatzen duela. Informazio gabezia horri gehitzen zaio burokraziaren pisua, zerbitzuak jasotzeko itxaron zerrendak edota denborak zeinak sarbidea zailtzen duten eta babes-sistemaren eraginkortasuna murrizten duen. “Burokraziak eta denborak” edo “paper kontuak, pisu burokratikoak, izapideak egiteko zailtasunak...” horren adierazle dira.

Zaintza sistemaren egiturazko gabeziak ere nabarmenak dira komunitatearen ikuspegitik. Zerbitzuak ez daude behar bezala antolatuta, eta ez dago baliabide nahikorik komunitatea indartzeko. “Zaintza ez dago estrukturatuta, organizatuta” eta “ez dago instrumenturik komunitatea indartzeko” bezalako baieztapenak erakusten dute zaintza sistemaren jasagarritasuna kolokan dagoela, batez ere kontuan hartuta erronka demografikoak eta familia eredu aldaketa.

Gainera, zaintza sistemaren funtzionamendua erreaktiboa dela salatzen da: baliabideak eta zerbitzuak gehienetan premia larria agertzen denean soilik aktibatzen dira, eta ez dago prebentzioaren aldeko kultura sendo bat. Prebentziozko ekimenak existitzen badira ere, ez dira ez nahikoa ezagunak, ezta baloratuak ere. “Urgentziazkoa den jarrera badago, baina prebentziozkoa laban batez” esaldia horren adibide argia da.

Bestalde, komunitateko elkarrizketatuek ere zaintza gero eta gehiago merkantilizatzen ari dela aitortzen dute. Haien diskurtsoetan agertzen den iritzia da zaintza ez dela behar bezala baloratzen eskubide sozial gisa, eta gero eta gehiago bihurtzen ari dela negozio pribatu baten objektu: “publikoa txirotu eta pribatua indartu da” bezalako adierazpenak erakusten dute komunitateak kezka duela zaintza sistemaren norabidearen inguruan, eta aldaketa sakon baten beharra aldarrikatzen duela.

Testuinguru horretan, politika berrien beharra nabarmen azaleratzen da. Komunitatearen iritziz, zaintza eskubide unibertsal gisa aitortu behar da, eta zaintza sistemaren antolaketa publiko eta komunitario baten aldeko apustua egin behar da. Proposamen ausartak ere agertzen dira, hala nola zaintza osasun edo hezkuntza sistemaren pareko egitura publiko batean antolatzea: “Zaintzagintza, zergatik ez? Zaintza etxe bat, Osakidetza bezala”. Halako ikuspegiak erakusten

dute komunitateak ez duela soilik kritika egiten, baizik eta alternatibak eta irtenbideak ere proposatzen dituela.

Ardura partekatua ikuspegia ere oso presente dago. Zaintza ez da instituzioen ardura eskusiboa, ezta komunitatearena bakarrik ere. “Ez da instituzioen ardura bakarrik, ezta komunitatearena bakarrik ere” bezalako adierazpenek erakusten dute erantzun kidetasunaren kultura bat garatu behar dela, non erakunde publikoek, komunitateak eta familiek elkarrekin jardungo duten. Hala ere, komunitateak bere rola bete ahal izateko, egiturazko baliabideak, prestakuntza eta koordinazio tresnak behar ditu. “Komunitateak ere ardura du, baina ez dago saretuta” esaldia horren adierazle da: borondatea badago, baina horrek ez du nahikoa balio egiturarik gabe.

Azkenik, komunitatearen potentziala nabarmendu egiten da zaintza sareak sortzeko eta beharrei erantzuteko. “Sarea sortu behar da eta sentsibilizatu” bezalako adierazpenek erakusten dute komunitateak baduela borondatea eta gaitasuna, baina horretarako baldintza egokiak sortu behar direla: konfiantza, baliabideak eta ikusgarritasuna. Zaintza komunitarioa ez da ikuspegi idealista gisa aurkezten, baizik eta praktikan oinarritutako proposamen errealista gisa: “Zaintza komunitarioa ez da utopia, gertatu daiteke”.

d) Familia zaintzaileen esfera

Zaintzaileek zaintza politiketikiko ikuspegi kritikoa eta esperientzian oinarritutako irakurketa sakona eskaintzen dute. Zerbitzu publikoen existentzia aitortzen bada ere, informazioaren transmisioa eskasa dela salatzen da. Zaintzaileek adierazten dute baliabideak ez direla modu eraginkorrean ezagutarazten: “ez dakigu zer dagoen. Informazioa ez da ondo heltzen” eta “pantaila bat jarri arte ez dakizu”. Horrek erakusten du informazioaren kanalak ez direla irisgarriak, eta horrek zaintzaileen ziurgabetasuna eta babesgabetasuna areagotzen du.

Zaintza sistemaren funtzionamenduan burokraziak eta digitalizazioak oztopo handiak sortzen dituztela azpimarratzen da. “Burokrazia handiegia da. Jende askok ez daki nora jo” eta “digitalizazioarekin jende asko atzean geratzen ari da” bezalako esaldiak erakusten dute sarbidea ez dela unibertsala, eta zaurgarrienak atzean geratzen direla. Arreta pertsonalizatuaren falta ere aipatzen da, eta horrek zaintzaileen eta zainduen arteko distantzia emozionala handitu dezake.

Zaintzaileen ustez, etxeko zaintza indartu behar da, eta horretarako baldintza duinak behar dira: “etxean egon nahi dugu. Baina horretarako zaintza profesionala behar da, soldata duinekin”.

Horrek erakusten du zaintza etxean emateko borondatea badagoela, baina baliabide eta aitortza falta direla. Zaintzaileen lan-baldintzak, prestakuntza eta aitortza funtsezkoak dira zaintza sistemaren kalitatea bermatzeko.

Politika berrien beharra modu argian agertzen da. Zaintzaileek aldarrikatzen dute zaintza sistemak komunitatearekin eta profesionalekin elkarlanean berrantolatu behar direla: “administrazioak ez du gaitasunik bakarrik zaintza guztiari aurre egiteko. Komunitatearekin batera egin behar da”. Zaintza ez da soilik administrazioaren ardura, baizik eta gizarte osoaren erronka kolektiboa.

e) Zaintza beharrak dituzten pertsonen esfera

Esparru honetan, erakundeek ezartzen dituzten harremanei garrantzi handia ematen zaio. Alde batetik zaintza zerbitzuak jasotzen dituzten pertsonekin izaten diren harremanen sendotasunaren garrantzia azpimarratzen da, beti ere enpresekin sortzen den harreman eta gertutasuna alde batera utzi gabe.

Enpresekin ezartzen diren harremanei dagokionez, hauen arteko gertutasun eta kontrol falta nabarmentzen da, haien hitzetan: “Enpresak ez dituzte kontrolatzen udaletxeek. Oso diferente da dena... kanpo enpresa, Bilbokoa... enteratu al dira nola ibiltzen diren zaintzaileak? Ez...”

Udalak eta zaintzak eskaintzen dituzten enpresen arteko harremanen ahultzeak, zainduak diren pertsonengan kaltegarria dela aitortzen dute, honen kalitateak eragin zuzena duela artatuak diren pertsonetan azpimarratuz: “Lehen gizarte zerbitzuetan dena zekiten, orain ez. Lanez gainezka dabilta beti. Konfiantza zegoen, beste hartu- eman bat.”

Zainduak diren pertsonen, ezinbestekotzat hartzen dute gizarte zerbitzuetatik jasotzen den arreta konfiantzazkoa eta gertukoa izatea.

Gizarte zerbitzuek kasu bakoitzeko egoera desberdinak existitzen direla kontuan hartu behar dute eta kasu hauei egokitzu behar bakoitzaren arabera erantzun indibiduala eman behar dela aipatzen da, arreta pertsonalizatua alegia. Elkarriketatuek erakunde eta zainduen arteko distantzia handitu dela azpimarratzen dute, harremanak asko hoztu direnaren ondorioz gertatzen dela aipatzen da: “Udaletxeak hartu- eman gehiago egin behar zuen familiekin. Orain ez dago. Leporaino daude, orain ezin dute.”

Bestalde, etxez- etxeko zerbitzuaren kasuan, pertsona bakoitzaren beharren arabera arreta egokitu behar da, modu xehean eta pertsonalizatuan “Neska joaten zaizu eta hau ta bestea egingo dizut eta listo... ez dute denborarik eta ‘deprisa y corriendo’.”

Zaintza politikei buruz hitzegitean, hauek zentzu zabalean ulertuaz, hobekuntzak behar dituztela aipatzen da. Gertutasuna, pertsonen behar konkritu eta indibidualei erantzunez, egin behar direla azpimarratzen da. Politikak egiten dituzten pertsona hauek herritarrengan urrundu direla nabarmenduz: “gaixoa, gaixo dago eta pertsona, pertsona da ikusi behar dute... Alderdi horretatik pixka bat begiratu beharko da...”. Izan ere, enpatiaz eta jarrera ulerkorra dute “leporaino daude” azpimarratzen da behin baino gehiagotan.

C. BLOKEA: Zaintzekiko sentsibilizazioa eta erantzun- kidetasuna

a) Esfera publikoa

Esfera publikoan agerian geratzen da zaintzaren inguruan dagoen sentsibilizazioa ez dela homogenea. Elkarriketatuek, hausnarketa aktiboa egiten dute eta haien ardurak bereganatzen dituzte modu eraikitzailean: “ Errealitateak erantzuna eskatu baino, erantzun bat ematera behartzen du eta zerbitzuak egokitu behar dira (...) herriaren errealitatea eta beharra aldatzen joan da”.

Aipatu dugun bezala urgentzia mailan eskaintzen dira, gehien bat, zaintza zerbitzuak beharrezkoak ez direnera arte ez dira eskatzen “familia barruan zaindu daitekeen bitartean hala egiten da, lotsagatik agian”. Horrek erakusten du zaintza ez dela oraindik gizartearen eguneroko praktiken parte eta zaintza prebentiboaren ikuspegia ez dela barneratu.

Hala ere, komunitatearen beharra nabarmentzen da “sareak sortu. Elkartasun sareak sortu behar dira” zaintza beharrei bere osotasunean erantzun egokia emateko eta komunitatearen garrantzia nabarmenduz.

Parte-hartzea aktibatzeko, komunitatearen eguneroko espazioak eta harreman sareak aktibatu behar dira. “Komertzioak, botikak... egunerokotasunean dauden begiak dira” bezalako adierazpenek erakusten dute zaintza komunitarioa ez dela soilik zerbitzu formalean oinarritzen, baizik eta eguneroko bizitzan txertatutako begirada eta jarrera kolektiboetan.

b) Esfera pribatua

Esfera pribatuan jasotako diskurtsoek erakusten dute zaintzarekiko sentsibilizazioa ez dela homogenea, eta herritarren artean jarrera eta kontzientzia maila oso desberdinak daudela. Parte-hartzaileek adierazi dute zaintza, oro har, ez dela gizartearen eguneroko praktiketan barneratuta dagoen zerbait, eta askotan, zaintza beharrekiko erantzuna atzeratua edo

erreaktiboa izaten dela. “Ez dut uste prebentziora jotzen dugunik... gehiago gaude ‘apagando fuegos’”, dio elkarrizketatu batek, zaintza prebentiboaren gabezia azpimarratuz.

Zaintza emozionala eta komunitarioa ez dira oraindik behar bezala baloratuak, eta horrek eragiten du herritarren parte-hartzea mugatua izatea. Elkarrizketatu batek dioenez, “hilabetean behin herritar bat etortzea ona da, eta norbaitekin jardinean hizketaldi bat egitea... niretzako hori ere zaintza da”, baina horrelako ekintzak ez dira sistematikoak, eta askotan boluntarioen borondatearen menpe daude. Horrek erakusten du zaintza komunitarioaren garapena oraindik oztopo askoren menpe dagoela.

Zaintzarekiko sentsibilizazioa, gainera, askotan ikuspegi instrumental edo ludiko bati lotuta agertzen da. Adibidez, egoitzako erabiltzaileei zezenetara joateko aukera ematen zaie, baina “benetan irisgarriak diren lekuak ez dizkigute beti uzten”, eta horrek zaintza ikuspegiaren sakontasun eza agerian uzten du. Elkarrizketatuaren arabera, “gauza ez da ematea, eman behar dizkiguzu gure beharrei egokitzen direnak”, eta horrek erakusten du zaintza ez dela soilik presentzia fisikoa, baizik eta beharretara egokitutako arreta.

Erantzun-kidetasunari dagokionez, parte-hartzaileek aitortzen dute komunitatearen inplikazioa mugatua dela, eta askotan, informazio faltak edo eguneroko bizitzaren erritmoak parte-hartzea zailtzen dutela. “Guk ez badugu hori adierazten, herriak ezin du jakin”, dio elkarrizketatu batek, eta horrek erakusten du zaintza komunitarioa sustatzeko ezinbestekoa dela beharrak identifikatzea eta komunikazio kanal eraginkorrak ezartzea.

Zaintza komunitarioa garatzeko espazioei dagokienez, egoitzako arduradunek proposatzen dute zentroa herritarrentzat irekita egotea, eta bertan egiten diren jarduerak herrira zabaltzea. “San Martin herria da... guk gure arduratik herrira irekita egon behar duela”, adierazi dute, eta horrek erakusten du zaintza komunitarioaren garapena ez dela soilik kanpoko ekimenen menpe, baizik eta barneko prestutasunetik ere abiatzen dela.

Zaintza emozionalaren dimentsioan, elkarrizketatu batek azpimarratzen du zaintza ez dela soilik lan orduetan gertatzen den zerbait, baizik eta pertsonen arteko harremanetan eta eguneroko bizitzan txertatutako jarrera bat: “Nire emozioak zaindu behar ditut, baina ez lanean bakarrik, lanetik kanpo ere bai”. Horrek erakusten du zaintza emozionala ez dela soilik erabiltzaileei zuzendutako zerbait, baizik eta langileen arteko harremanetan ere landu beharreko dimentsio bat dela.

Azkenik, parte-hartzaileek ohartarazten dute zaintza komunitarioaren garapena ez dela posible soilik boluntarioen borondatearekin, eta beharrezkoa dela egiturazko laguntza eta

sentsibilizazio kanpainak. “Askotan egin daitekeena errazagoa da buruan jartzen duguna baino”, dio elkarrizketatu batek, eta horrek erakusten du zaintza komunitarioa ez dela utopia, baizik eta antolaketa eta borondatearen bidez gauzatu daitekeen errealitate bat.

Laburbilduz, esfera pribatuan zaintzarekiko sentsibilizazioa oraindik erronka handia da. Zaintza emozionala eta prebentiboa ez dira behar bezala baloratuak, eta komunitatearen parte-hartzea mugatua da, informazio faltagatik eta egiturazko oztopoengatik. Hala ere, borondatea eta potentziala existitzen dira, eta horiek baliatuz, zaintza komunitarioaren garapena posible eta beharrezkoa da.

c) Esfera komunitarioa

Komunitatearen ikuspegitik, zaintzarekiko sentsibilizazioa ez da homogenea, eta herritarren artean desberdintasun nabarmenak daude zaintzarekiko jarreran. Oro har, parte-hartzaileek adierazi dute sentsibilizazio maila baxua dela, batez ere belaunaldi gazteen artean. “Gazteek ez dute borondaterik zaintzan parte hartzeko” bezalako adierazpenek erakusten dute belaunaldien arteko arrakala bat dagoela zaintzaren inguruko kontzientzia mailan.

Zaintzarekiko jarrera askotan erreaktiboa da, eta ez prebentiboa. Zaintzaren kasuan, urgentziazko jarrera baino, prebentziozkoari heltzea beharrezkoa dela azpimarratzen da: “Aurrea hartu behar zaie gai hauei, eta ezin dira soilik urgentziaz artatu.” esaldia horren adierazgarri da. Ekimen prebentiboak ondo baloratzen dira galdetzen zaienean: “memoria tailerrak eta ondo pasatzen dugu”.

Komunitatearen potentziala ere azpimarratzen da. Parte-hartzaileek adierazi dute komunitateak erantzuteko gaitasuna duela, baina horretarako baldintza batzuk bete behar direla: konfiantza, saretzea eta komunikazio eraginkorra. “Zaintza da konfiantza, elkar ezagutzea, kezkak partekatzea” bezalako esaldiek erakusten dute zaintza komunitarioa harreman sozialen kalitatean oinarritzen dela. Horren adibide gisa aipatzen da: “bloke oso bat mugitu zen laguntzeko”, egoera jakin batean komunitateak kolektiboki erantzun zuela erakutsiz.

Parte-hartzea aktibatzeko, komunitatearen eguneroko espazioak eta harreman sareak aktibatu behar dira. “Komertzioak, botikak... egunerokotasunean dauden begiak dira” bezalako adierazpenek erakusten dute zaintza komunitarioa ez dela soilik zerbitzu formalean oinarritzen, baizik eta eguneroko bizitzan txertatutako begirada eta jarrera kolektiboetan.

d) Familia zaintzaileen esfera

Zaintzaileen diskurtsoetan agerian geratzen da zaintzarekiko sentsibilizazio soziala oso mugatua dela. Herritarren artean ez dago zaintzaren inguruko kontzientzia zabalik, eta askotan zaintza behar denean bakarrik aktibatzen da. “Zaintza ez da ikusten behar den arte. Ez dago ikuspegi prebentiborik” edo “jendeak ez du zaintza eskatzen prebentzioz, baizik eta ezin duenean bakarrik” bezalako testigantzek erakusten dute zaintza oraindik ez dela gizartearen eguneroko praktiken parte.

Zaintzaileen esperientziaren arabera, jarrera prebentiboaren gabezia da zaintza sistemaren ahulgune nagusietako bat. Zaintza etxean sortzen denean bakarrik hasten da aktibatzen, eta horrek ondorio larriak izan ditzake bai zaintzaileen bai zainduen ongizatean. Horrek erakusten du zaintza sistemak ez duela oraindik kultura prebentibo sendo bat garatu.

Komunitatearen rola funtsezkotzat jotzen da zaintza sistemaren osagarri gisa. Zaintzaileek azpimarratzen dute elkarlaguntza eta saretzea ezinbestekoak direla: “komunitatearen rola da elkarlaguntza. Eta hori falta da” edo “komunitateak eta administrazioak elkarrekin lan egin behar dute. Bakoitzak bere rola du”. Horrek erakusten du zaintza ez dela soilik zerbitzu publikoen ardua, baizik eta gizarte osoaren konpromisoa eskatzen duen egitura kolektiboa.

e) Zaintza beharrak dituzten pertsonen esfera

Zaintzekiko sentsibilizazio eta erantzun- kidetasunari dagokionez, adinekoak kontuan hartzeko aldagetak beharrezkoak direla aipatzen da. Indibidualismorako joera eta bizitzaren erritmo azkarra dela eta hauek ahaztuak edo bigarren plano batera pasatzen direla esanez.

Herritarrei dagokionez, hauen inplikazio maila baxua nabarmentzen da, eta hau sentsibilizazio mailarekin bat datorrela aipatzen da, haien esanetan: “mentalizatu egin behar da, mentalizatu behar da jendea”. Ildo beretik, sentsibilizazioa sustatzeko herrian zerbait egiteko beharra dagoela diote elkarriketatuek: “Konferentziak edo...” egitea proposatzen da.

Arestian esan bezala, indibidualismo eta bizitzaren erritmo azkarrak adineko pertsonak baztertea eragiten dute, hau ere zaintzaren eskaintzari lotzen zaio, haien hitzetan: “Azpeitian edadeko jendeari ez zaio kasurik egiten.” “Ez da ikusten, bakoitzak berera (...) eta zerbitzuak beti korrika batean ematen dira”.

D. BLOKEA: Azpeitiko Zaintza Ekosistema

a) *Esfera publikoa*

Zaintza ekosistemari buruz, esfera publikoan elkarrizketatuak izan diren pertsonek beharrezkotzat jotzen dute gai honi heltzea. Uste dute sentsibilizazio faltak, komunitatearen galerak eta erakundeek zaintzaren aferari heltzeko dituzten zailtasunek eragin dezaketen egoera lausotzen lagundu dezakeela eta, ondorioz, ekintza sendoak behar direla.

Elkarrizketetan proposamen berritzaileak ere agertu dira, non zaintzak erdigunean jarritz bestea sail edo eragileekin lankidetzan aritzeko aukera ikusten den, gai honi behar bezala erantzuteko. Hona hemen adierazgarri den aipamen bat: "Trantsizio bat egin beharko genuke, zaintza zer den ulertuz plan bat egin eta, horren arabera, helburu batzuk zehaztu, gero zerbitzuak eskaini". Esaldi honek erakusten du ardura euren gain hartu eta autokritika eraikitzailea egiten dutela, aldaketa estrukturalaren beharra azpimarratuz. Zaintzak erdigunean jarritz, politika eta ekimen berriak bultzatzea proposatzen da, herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak zaintza ardatz hartuta garatzeko.

Bestalde, zaintzen krisiaren kontzientzia badagoela aipatzen da eta honekin batera zaintza ekosistema honi heltzeko aukera bezala: "Surf taula batean gaude eta olatu handia dator, olatua handitzen ari da eta aukera daukagu olatua hartzeko edo olatuak gu harrapatzeko, beti bezala".

Azkenik, zaintza onak modu heterogeneoan definitzen dituzte hainbat elementu garrantzitsu barne- bilduz: "autonomia errespetatzea", "autokritika egin", "komunitatea", "ulertzea", "maitasuna", "aurrean duzuna pertsona bat dela ikusi". Testigantza hauek erakusten dute zaintza modu zabal batean ulertzen dela, eta zaintza asistentzialista (higienea, botikak, elikadura...) baino haratago doala. Autokritika eraikitzailea eta aldaketa zein hobekuntza egiteko borondatea nabarmen geratu da.

b) *Esfera pribatua*

Esfera pribatuan parte hartu duten eragileek zaintza ekosistemaren kontzeptua modu positiboan jaso dute, eta zaintza eredu berri baten beharra argi eta garbi adierazi dute. Elkarrizketatuen diskurtsoetan agerian geratzen da zaintza ez dela instituzioen ardura eskusiboa, eta komunitateak, norbanakoek eta erakundeek elkarrekin jardun behar dutela zaintza sistema jasangarri bat eraikitzeko. "Gure rolak izan behar du rol aktibo bat, non hemen bizi diren pertsonek beharrak mahai gainean jartzen diren", adierazi du egoitza bateko arduradunak, zaintza ekosistemaren ikuspegi partekatua alderantziz jarri behar dela erakutsiz.

Zaintza ekosistemaren oinarrian, elkarriketatuen arabera, balio partekatuetan eta konfiantzan oinarritutako egitura sozial bat garatzea dago. Zaintza ona, haien esanetan, ez da soilik zerbitzu tekniko bat, baizik eta harremanetan eta errespetuan oinarritutako esperientzia bat: “Zaintza ona niretzako errespetuzko bidelaguna izatea da”, dio parte-hartzaile batek, eta horrek zaintzaren dimentsio afektibo eta pertsonalizatuaren garrantzia azpimarratzen du.

Zaintza ekosistemaren garapenean, norbanakoen erantzukizuna eta komunitatearen inplikazioa funtsezkotzat jotzen dira. Elkarriketatu batek dioenez, “San Martin herria da... guk gure arduratik herrira irekita egon behar duela”, eta horrek erakusten du zaintza ez dela soilik instituzioetatik kanpora proiektatu behar den zerbait, baizik eta barrutik ere eraiki behar den kultura bat. Zentzu horretan, zaintza ekosistema ez da ikuspegi idealista gisa aurkezten, baizik eta praktikan oinarritutako proposamen errealista gisa.

Zaintza ekosistemaren funtzionamendurako, elkarlana eta saretzea ezinbesteko elementuak dira. Parte-hartzaileek azpimarratzen dute “dena konektore sozial baten bidez lotu behar dela”, eta horrek erakusten du zaintza ez dela soilik zerbitzuen multzo bat, baizik eta komunitate oso baten arteko koordinazio eta konfiantzan oinarritutako egitura. Elkarriketatu batek dioenez, “guk ez badugu adierazten, herriak ezin du jakin”, eta horrek informazioaren eta komunikazioaren garrantzia azpimarratzen du zaintza ekosistema eraginkor bat eraikitzeko.

Zaintza ekosistemaren erronketako bat da zaintza emozionala eta soziala sistemaren erdigunean kokatzea. Parte-hartzaileek salatzen dute gaur egungo sistemak errentagarritasun logiketan oinarritzen direla, eta horrek zaintza emozionala bigarren planoan uzten duela: “Gaur Anttoni egon da ohe honetan... eta ahal baldin bada, bihar ohe hori okupatu egin behar da”. Horrelako praktikek erakusten dute zaintza ekosistema bat eraikitzeko, beharrezkoa dela zaintza emozionala eta pertsonalizatua lehenestea.

Azkenik, zaintza ekosistemaren garapena ez da soilik baliabide ekonomikoen kontua, baizik eta ikuspegi kulturala eta soziala ere bada. Elkarriketatu batek hausnarketa interesgarria egiten du: “Beharra edo nahia... alde handia dago”, eta horrek erakusten du zaintza ez dela soilik premia objektiboetara mugatzen, baizik eta pertsonen nahiak, ohiturak eta duintasuna kontuan hartzen dituen sistema bat eraikitzea dela helburua.

Laburbilduz, esfera pribatuan zaintza ekosistemaren beharra modu argian adierazten da. Elkarriketatuen ustez, zaintza eredu berriak balio partekatuetan, konfiantzan eta erantzunkidetasunean oinarritu behar du. Zaintza ona ez da soilik arreta teknikoa, baizik eta pertsonen ongizatea eta duintasuna erdigunean jartzen dituen harreman-sare bat. Zaintza ekosistema,

beraz, ez da utopia bat, baizik eta komunitatearen, erakundeen eta norbanakoen arteko lankidetzan oinarritutako errealitate eraikigarri bat.

c) Esfera komunitarioa

Zaintza ekosistemaren kontzeptua modu positiboan jasotzen da komunitatearen diskurtsoetan. Parte-hartzaileek ulertzen dute zaintza ez dela instituzioen ardura eskusiboa, eta komunitateak, norbanakoek eta erakundeek elkarrekin jardun behar dutela zaintza sistema jasangarri bat eraikitzeko. “Gure ardura da, ez da instituzioena bakarrik” bezalako adierazpenek erakusten dute erantzun- kidetasun partekatuaren ikuspegia oso errotuta dagoela.

Zaintza ona definitzerakoan, balio komunitarioak eta ongizate emozionala nabarmendu ziren. “Zaintza ona: lasai bizitzeko modu bat, babesa, konfiantza, auzolana, saretzea” bezalako hitzek erakusten dute zaintza ez dela soilik zerbitzu tekniko bat, baizik eta harremanetan eta konfiantzan oinarritutako esperientzia bat. Zaintza komunitarioa ez da ikuspegi idealista gisa aurkeztu, baizik eta praktikan oinarritutako proposamen errealista gisa: “zaintza komunitarioa ez da utopia, gertatu daiteke”.

Zaintza ekosistema bat eraikitzea ez da soilik baliabide ekonomikoen kontua, baizik eta balio partekatuetan eta konfiantzan oinarritutako egitura sozial bat garatzea. “Auzolana, konfiantza, babesa... horiek dira gure balioak” bezalako adierazpenek erakusten dute komunitateak baduela borondatea eta gaitasuna, baina horretarako beharrezkoa dela saretzea, gobernantza kolaboratiboa eta norbanakoen konpromisoa. “Ekosistema bat da: esfera ezberdinak saretzea” esaldia horren adierazle da, eta zaintza ikuspegi integral eta partekatu batetik ulertzeko premia berresten du.

d) Familia zaintzaileen esfera

Zaintzaileen diskurtsoetan zaintza ekosistemaren beharra modu argian agertzen da: “Zaintza ez da soilik administrazioaren ardura. Komunitateak ere parte hartu behar du” eta “jendeak eman behar dio soluzioa. Ez da kanpotik etorriko” bezalako testigantzek ikuspegi partekatu eta eraldatzaile baten premia azpimarratzen dute.

Norbanakoaren rola ere funtsezkoa da. Zaintzaileek azpimarratzen dute eguneroko ekintza txikiek zaintza sortzen dutela: “Farmazian izenez deitzea, egun on esatea... horiek zaintzak dira”. Horrek erakusten du zaintza ez dela beti zerbitzu formal bat, baizik eta harremanetan oinarritutako jarrera sozial bat.

Zaintza ona definitzerakoan, balio afektibo eta sozialak nabarmentzen dira: “zaintza ona da: elkarlaguntza, konplizitatea, eta pertsona gisa aitortzea” edo “enpatia, ardura, pazientzia, konpainia, eta begirada emozionala”. Esaldi hauek zaintza sistemaren humanizazioaren aldeko aldarria dira, eta zaintza harremanen kalitatea lehenesten dute.

e) Zaintza beharrak dituzten pertsonen esfera

Hainbat aldiz aipatu da zerbait egitearen beharra adineko pertsonak jasotzen duten arreta hobetze aldera. Esfera ezberdinei erreparatuz eta bakoitzari dagokion ardura bereganatuz.

Zaintzei dagokionez arretaz zaintzea eta zaintzailearen inplikazioaren garrantzia zerbitzuaren kalitatean zuzeneko eragina dutela esaten da: “Gustura egin behar da lan hori ere” edo zaintzailearen prestutasuna ezbehar bati erantzuteko garaian ematen duen lasaitasuna honela azaltzen da: “Zerbait beharrez gero deitu lasai, esaten dit... saiatzen naiz ahalik eta gutxien molestatzen, eta moldatu baldin banaiteke moldatzen naiz. Baina, ba al dakizu zer nolako lasaitasuna ematen didan niri hor nonbait bera eskuragarri dagoela jakiteak?”.

Bakoitzak daukanari xehetasunez eta ganoraz zaintzeari garrantzi handia ematen zaio. Askotan aipatzen da bakoitzaren gustuak eta pertsonekin adeikorra izatearen garrantzia. Gainera: “Daukaguna ondo zaindu” esaten da zaintza onak emateko oinarri bezala eta hauen garrantzia azpimarratuz

7. ONDORIO NAGUSIAK

7.1 Esfera publikoa

Esfera publikoaren iritzi kolektiboak argi uzten du zaintza ez dela jarduera tekniko edo instituzional hutsa, baizik eta dimentsio soziala, emozionala eta komunitarioa duen egitura funtsezkoa. Zaintza bizitzaren etapa guztietan presente dagoen behar gisa ulertzen da, eta ez da soilik mendekotasun egoerei lotzen. Hala ere, egungo antolaketa publikoak ez du gaitasunik erakusten etorkizuneko erronka demografikoei modu eraginkorrean eta jasangarrian erantzuteko. Zaintza politikek oraindik ez dute lortu ikuspegi transbertsal eta integratua garatzea, eta burokraziak, informazio faltak eta baliabide urritasunak zerbitzuen irisgarritasuna eta kalitatea mugatzen dituzte.

Zaintzarekiko jarrera, oro har, erreaktiboa da, eta ez dago kultura prebentibo sendo bat. Arestian aipatutako zerbitzu publikoen irisgarritasuna eta kalitatea burokraziak, informazio faltak eta baliabide urriek baldintzatzen dituzte. Aldi berean, zaintza ez da gizarte zerbitzuetara mugatzen: kultura, kirola, hirigintza eta beste udal sail batzuek ere zaintza eskaintzen dute, nahiz eta askotan ikusezin bihurtzen den. Horren aurrean, beharrezkotzat jotzen da zeharkako ikuspegi eta integratua garatzea, non instituzio publikoek, komunitateek eta familiek elkarrekin jardungo duten. “Zaintza ez da soilik pastillak ematea; kafe bat hartzeko espazio bat ere bada” bezalako esaldiek zaintza ulertzeko modu humanizatuago eta komunitarioago baten premia azpimarratzen dute.

7.2 Esfera pribatua

Esfera pribatuan, zaintzaren kontzepzioa ikuspegi zabalean ulertzen da, non pertsonalizazioa, dimentsio soziala eta afektiboa, zaintza asistentzialistari gehituz eman behar diren. Zaintza emozionalaren eta prebentiboaren gabezia nabarmena da eta sistemaren errentagarritasun logikek, zaintza pertsonalizatua eta duina oztokatzen dute. Zaintza lanen banaketa ez parekidea da eta emakumeek hartzen dute ardura nagusia, bai esparru profesionalean, bai pribatuan. Paternalismoaren arriskua ere agerian dago, eta zaintza eredu berriak behar direla azpimarratzen da.

Zaintza politikekiko ikuspegi kritikoa eta eraikitzailea ageri da. Zerbitzu publikoen ezagutza mugatua da, eta koordinazio falta nabarmena. Politika publikoek zaintzarekiko ikuspegi estrukturala garatu beharko lukete, bide batez, zaintza emozionala eta komunitarioa bigarren mailan geratu ez daitezen. Parte-hartzaileek ardura partekatua aldeko apustua egiten dute,

eta zaintza eskubide unibertsal gisa aitortzea eskatzen dute. Zaintza ekosistemaren ikuspegitik, elkarlana, saretzea eta balio partekatuetan oinarritutako egitura soziala funtsezkotzat jotzen dira, eta zaintza ona errespetuan eta pertsonen nahiak kontuan hartzean oinarritu behar dela azpimarratzen da

7.3 Esfera komunitarioa

Esfera komunitarioan zaintza ulertzen da bizitzako etapa guztietan presente dagoen harreman-modu gisa, dimentsio fisikoa, emozionala eta soziala uztartzen dituen esperientzia gisa. Zaintza ez da soilik mendekotasunarekin lotzen, baizik eta eguneroko keinu eta jarreraren bidez gauzatzen den ongizatearen oinarria da. Hala ere, generoaren arabera desoreka estrukturalak, familia egituren aldaketa eta zaintza sistemaren egiturazko gabeziak agerian geratzen dira. Zerbitzuen ezagutza eta irisgarritasuna mugatuak dira, eta zaintza politikek ez dute oraindik ikuspegi transbertsal eta integratua garatu. Komunitateak zaintza eskubide unibertsal gisa aitortzea eta ikuspegi publiko-komunitarioa garatzea aldarrikatzen du.

Zaintzarekiko sentsibilizazioa ez da homogenea, eta belaunaldien arteko arrakala nabarmena da. Zaintza jarrera askotan errektiboa da, eta prebentzioaren kultura ez dago barneratuta. Hala ere, komunitateak badu potentziala: konfiantzan, elkar ezagutzean eta eguneroko espazioetan txertatutako zaintza praktiketan oinarrituta, zaintza komunitarioa garatzeko gaitasuna erakusten du. Zaintza ekosistemaren ikuspegitik, komunitateak argi du zaintza ez dela instituzioen ardura bakarrik. Zaintza ona harremanetan, errespetuan eta auzolanaren balioetan oinarritutako esperientzia gisa ulertzen da, eta zaintza komunitarioa ez da utopia, baizik eta baldintza egokiak sortuz gauzatu daitekeen errealitate kolektiboa.

7.4 Familia zaintzaileen esfera

Esfera zaintzailean, zaintza ulertzen da harreman afektibo eta sozialetan oinarritutako esperientzia gisa, eta ez jardura tekniko edo funtzional hutsa bezala. Zaintza “presentzia” gisa definitzen da, eta entzutea, konpartitzea eta unean uneko laguntza bezalako elementuak funtsezkotzat jotzen dira. Zaintza ez da etapa jakin batekin lotzen, baizik eta bizitzaren osotasunean zehar beharrezkoa den fenomeno da. Hala ere, generoaren arabera desoreka nabarmena da, eta zaintza lanen banaketa ez parekidea oraindik errotuta dago. Zaintzaileek zaintza emozionala eta funtzionala generoaren arabera ezberdin banatzen direla salatzen dute.

Zaintza politikekiko ikuspegi kritikoa ageri da: informazioaren transmisioa eskasa da, burokrazia eta digitalizazioa oztopo bihurtzen dira eta baliabideak ez dira irisgarriak. Zaintzaileen ustez,

etxeko zaintza indartu behar da, baina horretarako baldintza duinak eta aitortza profesionala sustatu behar dira. Sentsibilizazioari dagokionez, zaintza oraindik ez da gizartearen eguneroko praktiken parte, eta ikuspegi prebentiboa falta da. Zaintza ekosistemaren ikuspegitik, zaintza ez da soilik administrazioaren ardura, baizik eta komunitatearen, norbanakoen eta profesionalen arteko elkarlanaren emaitza. Zaintza ona, haien esanetan, elkarlaguntza, konplizitatea eta pertsona gisa aitortzean oinarritzen da.

7.5 Zaintza beharrak dituzten pertsonen esfera

Zaintzak jasotzen dituzten elkarriketatuen artean zaintzak modu zabal eta sakonean ulertzen dira. Askotan azpimarratzen da pertsonak behar duten arretaren xehetasuna eta pertsonalizazioa, baita zaintzak ematen dituen pertsona, enpresa edo eta erakundeek inplikazioaren garrantzia ere.

Arlo emozionala lehenesten da, hau giltza bat izango balitz bezala beste zaintza mota batzuk eskaini ahal izateko. Babes- eremua eta konfiantza maila altua ezinbestekoak dira egoera zaugarrian edo egoera horretan izateko arriskuan dauden adineko pertsonentzat.

Zaintza politikei dagokionez, jarrera kritikoa abiapuntutzat hartuz, iraganean ematen zen zerbitzuaren kalitatearekin alderatzen da. Esparru honetan, hartu- emanak eta harremanak estutu eta hobetu behar direla azpimarratzen da. Lanaren kalitateak, pertsona hauek jasotzen dituzten zaintzen kalitatea bermatzen baitu.

Azkenik, bizitzaren erritmoak eta indibidualismorako joeraren ondorio bezala adineko pertsonak alde batera uztera eramaten ditu herritar eta senitartekoak. Horrekin lerrokatzen da, herritarren sentsibilizazio maila baxua eta zaintza eta adineko pertsonenganako existitzen den interes falta.

Hau guztiari aurre egiteko, proposatzen den Zaintza Denontzat proiektua egokituz ikusten da. Alde batetik, herritarrek sentsibilizatzeko, bestetik, erakundeek sortzen dituzten harremanen kalitatea hobetzeko eta bermatzeko eta azkenik, hauen ondorioz, zaintzak behar dituzten eta etorkizunean beharko dituzten pertsonen ongizatea ziurtatzeko baliabide eraginkorra eta egokia izango dela aurreikusten dute zainduak diren pertsonak.

- Arrieta, F. 2022. "Gizarte Zerbitzu Sistemarik, Zaintza Sistemara: Nola Egin Saltoa?" *Euskonews* 775. orr.
- Ander-Egg, E. (2005). Metodología y práctica del desarrollo de la comunidad, Lumen Humanitas.
- Berman, S. 1997. "Children's Social Consciousness and the Development of Social Responsibility." *New York State University Press. New York.*
- Borderías, C; Carrasco, C; Alemany, C. 1994. "Las Mujeres y El Trabajo: Rupturas Conceptuales." *Barcelona/Madrid: Icaria/FUHEM.*
- Cabrera, G. 2006. "La Responsabilidad Social de La Empresa y Las Metas de Desarrollo Del Milenio." <http://www.educared.edu.pe/directivos/articulo/1044/la-responsabilidad-social-de-la-empresa-y-las-metas-de-desarrollo-del-milenio/>.
- Comas D'Argemir, D. 1993. "Sobre El Apoyo y El Cuidado. División Del Trabajo, Género y Parentesco, En Roigé, X. (Coord.) Perspectivas En El Estudio Del Parentesco y La Familia, VI Congreso de Antropología." *Asociación Canaria de Antropología*: 65–82. or.
- Emagin. 2020. *Zaintza Lanen Demokratizaziorantz. Beterri Buruntzealdeako Zaintza Erregimenaren Diagnostikoa Eta Erkintzerako Proposamena.*
- Finch, J. 1989. "Family Obligations and Social Change." *Polity Press.*
- Goikoetxea, M. 2020. "La Soledad y El Valor Del Cuidado." *Ararteko*: 31–49.
- López-Cabanas, M.; Chacón, F. 1999. "Intervención Psicosocial y Servicios Sociales: Un Enfoque Participativo. Madrid: Síntesis." *Madrid: Síntesis.*
- Montero, M. 2003. "Teoría y Práctica de La Psicología Comunitaria: La Tensión Entre Comunidad y Sociedad." *Buenos Aires: Paidós.*
- Montero, M. 2004. "Introducción a La Psicología Comunitaria: Desarrollo, Conceptos y Procesos." *Buenos Aires: Paidós.*
- Mori Sanchez, M. D. P. 2009. "Responsabilidad Social: Una Mirada Desde La Psicología Comunitaria." *Liberabit* 15(2): 163–70.
- Pautassi, L; Faur, E; Gherardi, N. 2004. "Legislación Laboral En Seis Países Latinoamericanos. Avances y Omisiones Para Una Mayor Equidad, Serie Mujer y Desarrollo." *Santiago de Chile, CEPAL* 56.
- Pérez Orozco, A. 2019. *Subversión Feminista de La Economía. Aportes Para Un Debate Sobre El Conflicto* *Capital-Vida.* chrome-extension://efaidnbmninnbpcjpcglclefindmkaj/https://traficantes.net/sites/default/files/pdfs/Subversi%C3%B3n%20feminista%20de%20la%20econom%C3%ADa_Traficantes%20de%20Sue%C3%B1os.pdf (July 11, 2024).
- Robertis, C. eta Pascal H. (2007). La intervención colectiva en trabajo social. La acción con grupos y comunidades, Lumen Humanitas.

- Saitua, A; Sarasola, M. 1993. "La Insumisión. El Cuidado Como Elección." *Geu Emakumeok* 17: 27–29.
- Schwald, M. 2004. "Responsabilidad Social: Fundamentos Para La Competitividad Empresarial y El Desarrollo Sostenible." *Lima: Universidad del Pacífico*.
- Torns, T. 2005. "El Tiempo de Trabajo y Las Relaciones de Género: Las Dificultades de Un Cambio Ineludible. Tiempos, Actividades, Sujetos." *Una Mirada desde la Perspectiva de Género, Madrid*.
- Zárate, M. (2007). Desarrollo comunitario. R.Serrano eta J. Gómez- en (Eds.), *Modelo de desarrollo humano comunitario. Sistematización de 20 años de trabajo comunitario*, (193-214. Or). Plaza y Valdés.
- Zuñiga, M. eta Arrieta, F. (2021). Analizando la función de la comunidad en el sistema de organización social de los cuidados en Euskadi. *Revista de Servicios Sociales*, 74, 65-82.
<https://doi.org/10.5569/1134-7147.74.04>

a. Eranskina 1: Galdetegi itxia

Euskaraz
Bete ondorengo galdetegia
erantzun bakoitzaren laukian **X** -a jarriz

1. Zein generorekin identifikatzen zara?

- ☐ Emakumezkoa
☐ Gizonezkoa
☐ Ez-bitarra
Beste bat (mesedez, zehaztu): _____
☐ Nahiago dut ez esan

2. Gaur egun, Azpeitian bizi zara?

- ☐ Bai ☐ Ez

3. Adin tartea

- ☐ 16-24 urte artekoa
☐ 25-34 urte artekoa
☐ 35-44 urte artekoa
☐ 45-54 urte artekoa
☐ 55-64 urte artekoa
☐ 65-74 urte artekoa
☐ 75-84 urte artekoa
☐ 85 urte edo gehiago
☐ Beste adin bat:

Zaintzekiko Hausnarketa eta Ikuspegia Pertsonala

4. Ondorengo eskala honetan, zenbateko garrantzia daukatela uste duzu zaintzeki gizartearen ongizatean?
(0 = ez dira beharrezkoak, 10 = ezinbestekoak dira)

0 – 1 – 2 – 3 – 4 – 5 – 6 – 7 – 8 – 9 – 10
(borobildu puntuazioa)

5. Gaur egungo politika publikoak zaintzei lotutako erronkei aurre egiteko prestatuta daudela uste duzu?
(hazkunde demografikoak, familia ereduaren aldaketa...)

- ☐ Bai ☐ Ez
☐ Beste bat:

6. Eta komunitatea? (adibidez: bizilagunak, merkataria, lagun taldeak, herriko elkarteak, herri mugimenduak...)

Castellano
Rellene el siguiente cuestionario
mediante una **X** en la casilla de la respuesta

1. ¿Con qué género te identificas?

- ☐ Mujer
☐ Hombre
☐ No binario
Otro (por favor, especifique): _____
☐ Prefiero no decirlo

2. ¿Actualmente resides en Azpeitia?

- ☐ Sí ☐ No

3. Franja de edad

- ☐ Entre 16-24 años
☐ Entre 25- 34 años
☐ Entre 35-44 años
☐ Entre 45-54 años
☐ Entre 55-64 años
☐ Entre 65-74 años
☐ Entre 75-84 años
☐ 85 años o más
☐ Otra edad:

Reflexión y Visión Personal sobre los Cuidados

4. En esta escala, ¿cuánta importancia le das a los cuidados para el bienestar de la sociedad?
(0 = nada importante, 10 = imprescindibles)

0 – 1 – 2 – 3 – 4 – 5 – 6 – 7 – 8 – 9 – 10
(redondea la puntuación)

5. ¿Cree que las políticas públicas actuales están preparadas para afrontar los retos de los cuidados?
(crecimientos demográficos, cambio de modelo familiar...)

- ☐ Sí ☐ No
☐ Otras:

6. ¿Y la comunidad? (los vecinos, comerciantes, grupos de amigos, las distintas asociaciones o movimientos sociales...)

☐ Bai ☐ Ez
☐ Beste bat:

7. Eta familiak?

☐ Bai ☐ Ez
☐ Beste bat:

8. Badaukazu zaintza beharrak dituen hurbileko pertsonarik?

☐ Bai ☐ Ez
☐ Beste bat:

9. Zure kasuan, zaintzarik behar duzu?

☐ Bai ☐ Ez
☐ Beste bat:

10. Eta uste duzu, bizitzako momenturen batean zaintza beharrak izan/izango dituen pertsona bat izan zaitezkeela?

☐ Bai ☐ Ez
☐ Beste bat:

☐ Sí ☐ No
☐ Otras:

7. ¿Y las familias?

☐ Sí ☐ No
☐ Otras:

8. ¿Tiene alguna persona cercana con necesidades de cuidados?

☐ Sí ☐ No
☐ Otras:

9. En su caso, ¿precisa de apoyos o cuidados?

☐ Sí ☐ No
☐ Otras:

10. ¿Y cree que puede ser una persona que en algún momento de su vida tenga/va a tener necesidades de cuidado?

☐ Sí ☐ No
☐ Otras:

Zaintzak eta Gizarte Politikak

11. Zure ustez, Azpeitiko Udalak gaur egungo zaintza-beharrei ondo erantzuten die?

☐ Bai ☐ Ez
☐ Beste bat:

12. Garatzen diren udal-politikek, pertsonen beharrak kontuan hartu, erdigunean jarri eta lehenesten dituztela uste duzu?

☐ Bai ☐ Ez

13. Uste duzu Udalaren ekintza eta komunitatearen parte-hartze aktiboa (bizilagunak, elkarteak, herriko taldeak) uztartzen dituen ikuspegi batetik helduko balitzaien behar horiei, onuragarria izango litzatekeela?

☐ Bai ☐ Ez

Cuidados y Políticas Sociales

11. ¿Considera que el Ayuntamiento de Azpeitia responde correctamente a las necesidades actuales de cuidados?

☐ Sí ☐ No
☐ Otras:

12. ¿Cree que las políticas municipales que se desarrollan tienen en cuenta, ponen en el centro y priorizan las necesidades de las personas?

☐ Sí ☐ No

13. ¿Cree que si se abordaran estas necesidades desde un enfoque que combine la acción del Ayuntamiento con la participación activa de la comunidad (vecinos, asociaciones, grupos locales), sería beneficioso?

☐ Sí ☐ No

Erantzunkidetasuna eta zaintzarekiko sentsibilizazioa

14. Azpeitiko herritar eta bizilagunek, jarrera eta ardura zaintzaileak hartzeko ohitura dutela uste duzu?

Corresponsabilidad y sensibilización en el cuidado

14. ¿Cree que los vecinos y vecinas de Azpeitia tienen la costumbre de adoptar actitudes y responsabilidades en el cuidado? (entre vecinos,

(bizilagunen artean, bakardade egoeren aurrean, zaintza emozionalean, jendearen integrazio komunitarioan...)

☐ Bai ☐ Ez

15. Eskala horretan, nola baloratuko zenuke Azpeitiko herritarrek zaintzen inguruan duten sentibilizazio maila? (0 = sentibilizaziorik ez, 10 = oso sentibilizatuta)

0 – 1 – 2 – 3 – 4 – 5 – 6 – 7 – 8 – 9 – 10
(borobildu puntuazioa)

16. Ezagutzen duzu Azpeitian zaintzak sustatzen dituen auzo/komunitate jarduerarik?

☐ Bai ☐ Ez
☐ Beste bat:

17. Hala bada, zein?

Izendatu: _____

18. Zure kasuan, inoiz hartu duzu parte jarduera hauetan?

☐ Bai ☐ Ez
Zeinetan?:

19. Inoiz hartu duzu zure familiakoa edo ingurukoa ez den pertsona bat zaintzeko ardurarik? (adibidez: bizilaguna, adinekoa, mugikortasun murriztua duen pertsona, bakardade egoeran dagoen pertsona...)

☐ Bai ☐ Ez
☐ Ez dut inoiz egin, baina pentsatu izan dut

Azpeitiko Zaintza Ekosistema

Herritarrok ditugun zaintza beharrei erantzuteko ezintasuna nabaria da eta ondorioz zaintza eredu berri baten inguruan herri bezala hausnartu eta elkarrekin zaintzen eraldaketarako prozesu bat abiatzea ezinbestekoa da. Komunitatea, instituzio publikoak eta eragileak saretu eta elkarrekin norantza berean lanean jarriko dituen prozesu bat alegia. Zaintzen eraldaketa prozesua gidatuko duen lankidetzazko gobernantza eredu berria izango da zaintza ekosistema.

20. Azpeitik Zaintza-Ekosistema baten beharra duela uste duzu?

☐ Bai ☐ Ez

21. Gustatuko litzaizuke bertan parte-hartzea?

☐ Bai ☐ Ez

22. Prozesu eta ekitaldiei buruzko informazio gehiago jaso nahi baduzu, utzi zure kontaktua:

ante situaciones de soledad, cuidado emocional, integración comunitaria de la gente...)

☐ Sí ☐ No

15. En esta escala, ¿cómo puntuarías el grado de sensibilización de la ciudadanía de Azpeitia respecto a los cuidados? (0 = poca sensibilización, 10 = mucha sensibilización)

0 – 1 – 2 – 3 – 4 – 5 – 6 – 7 – 8 – 9 – 10
(redondea la puntuación)

16. ¿Conoces actividades vecinales/comunitarias que integren o fomenten los cuidados en Azpeitia?

☐ Sí ☐ No
☐ Otras:

17. Si es así, ¿cuál?

Nombrar: _____

18. En su caso, ¿ha participado alguna vez en estas actividades?

☐ Sí ☐ No
¿En cuál?:

19. ¿Te has involucrado alguna vez en el cuidado de alguien ajeno a tu familia o a tu círculo cercano? (por ejemplo: vecina/o, personas mayores, persona con movilidad reducida, persona en situación de soledad...)

☐ Sí ☐ No
☐ No lo he hecho nunca, pero lo he pensado

Ecosistema de Cuidados de Azpeiti

La imposibilidad de responder a las necesidades de cuidados de la ciudadanía es evidente, por lo que es imprescindible reflexionar sobre un nuevo modelo de cuidados y poner en marcha un proceso de transformación del cuidado mutuo. Un proceso que pondrá en red y en común a la comunidad, las instituciones públicas y los agentes. El ecosistema de cuidados será el nuevo modelo de gobernanza colaborativa que liderará el proceso de transformación de los cuidados.

20. ¿Cree que Azpeitia necesita un Ecosistema de Cuidados?

☐ Sí ☐ No

21. ¿Te gustaría participar en él?

☐ Sí ☐ No

22. Si quieres recibir más información sobre los procesos y eventos, déjanos tu contacto:

Izena:

Telf. / e-maila:

23. Beste ekarpenik egin nahiko zenuke?

Idatzi zure erantzuna:

Nombre:

Telf. / e-mail:

23. ¿Te gustaría hacer alguna otra aportación?

Escribe tu respuesta:

Konfidentzialtasuna

Mila esker inkesta honetan parte hartzeagatik. Zure erantzunak ematean, baimena ematen diguzu bildutako informazioa gure pribatutasun-politiken arabera erabiltzeko. Zure datuen erabilerari buruzko galderarik edo kezkarik baduzu, jarri gurekin harremanetan. Zure pribatutasuna da gure lehentasuna.

Confidencialidad

Muchas gracias por participar en esta encuesta. Al proporcionar sus respuestas, consiente que la información recogida se utilice de acuerdo con nuestras políticas de privacidad. Si tiene alguna pregunta o preocupación sobre el uso de sus datos, no dude en ponerse en contacto con nosotros. Su privacidad es nuestra prioridad.

b. Eranskina 2: Talde elkarrizketa – Focus Group

FOCUS GROUP		
Datu orokorrak		
Parte Hartzailea/k:	Data: ____/____/____	
Zabalduz Kooperatibako teknikariak: Naiara Franco eta Katrin Etxebeste		
Ekimenaren aurkezpena		
• Helburuak	• Metodologia	• Gobernantza
Asistentzia eta konfidentzialtasunaren sinatzea*		
Parte-hartzaileak bermatu beharrekoa: - Nahikoa informazioa jaso dut azterlanari buruz. - Ikerketari buruz komenigarritzat jo ditudan galdera guztiak egin ahal izan ditut, eta erantzun aproposa eman didate. - Nire parte-hartzea borondatezkoa dela ulertzen dut bai eta nire datuak isilpekoak izango direla ere, eta edozein unetan ikerketan parte hartzea utz dezakedala, inolako eraginik gabe. - Ikerketarako helburuarekin nire datuak erabiliko direla dakit.		
*Konfidentzialtasun dokumentua atxikita		
Aurkezpen erronda		
Parte-hartzaileen aurkezpen erronda		
Talde dinamika		
- Zein izan da komunitateak zaintza eskaini izan dizun esperientzia bat? - Aukera izango bazenu, zer eskatuko zenioke zure bizilagunari?		
Testuingurua		
Zaintza ari garenean, zertaz ari gara? Definizio txiki bat kokatzeko. Zaintza ari garenean, gure eguneroko jarduna posible egiten duten jardueren multzoaz ari gara (zer moduz dauden galdetzea, bazkaltzeko otordu bat prestatzea, etxe bizitza garbi izatea, umeen zaintza, mendekotasun egoeran dagoen adineko baten etxeko laguntza bermatzea...). Hala, zaintza lanak, herritarren ongizate fisiko eta emozionala egunero eta belaunaldiz belaunaldi birstortzen duten jarduerak direla ulertzen ditugu.		
Adibideak: - Adineko senide bati deitu, nola dagoen jakiteko. - Gurasoek ezin dutenean haur bat eskolara eramatea. - Gaixorik dagoen senitarteko baten etxea garbitzea. - Bakarrik bizi den lagun edo senide batentzat etxeko janaria prestatzea. - Familiako haurrekin edo bizilagunekin arratsalde bat jolasean edo eskulanetan antolatzea. - Bizilagun bati supermerkatuko poltsak etxera eramaten laguntzea. - Adineko pertsona bati mediku-azterketa egiten laguntzea. - Norbaiti administrazio-izapide zail bat betetzen laguntzea. - Bakarrik edo egoera ahulean bizi diren pertsonentzako tokiko laguntza-talde bat sortzea. - Etxe baten sarreran arrapala bat jartzea, irisgarritasuna hobetzeko.		

--

A PERFILA

Zabalduz
Gizarte Hirumeneko Kooperatiba
Cooperativa de Iniciativa Social



Maite Aranburu
78 urte

- Ibarran jaioa, baina gaztetan Azpeitira etorri zen bizitzera
- 2 anaia ditu, Tolosan bizi dira biak.
- Bere anaiek ez bezela, ikasketak utzi zituen etxean laguntzeko
- Alarguna 60 urtetik aurrera
- Bi seme-alaba izan ditu, eta harreman ona daukate

- Justun gisa lan egin du bizitza osoan
- Bakarrik bizi da etxean
- Mugikortasun-arazoak eta arazo kognitiboak ditu duela 5 urtetik

Gaztaroa

11 urte
Azpeitira bizitzera

Helduaroa

18 urte
Lanean hasi

25 urte
Semea jaio

28 urte
Alaba jaio

Zahartzaroa

60 urte
Alarguna

72 urte arte
Amaren zaintza

73 urte
Mugikortasun eta arazo kognitiboak

ZAINTZA BEHARRAK

* _____

* _____

* _____

* _____

* _____

ZAINTZA BEHARRAK

* _____

* _____

* _____

* _____

* _____

ZAINTZA BEHARRAK

* _____

* _____

* _____

* _____

* _____

A. PERFILA.		
Zaintza Beharrak	X	Zaintza Ekintzak
Gaztaroa		
Helduaroa		
Zahartzarora		

B PERFILA

Zaintza Ekosistema

Focus Group Dinamika





Jose Luis Garcia
82 urte

- Udalerrian jaio eta bizi izan da beti.
- Gaztetan ikasketak utzi zituen lanean hasteko.
- Alarguna da 73 urte dituenetik.
- 2 seme ditu.
- Janari denda baten jabe izan da 40 urtez.

- 65 urte zituenetik entzumen arazoak ditu.
- Pentsio txiki bat kobratzen du.
- Alargun geratu zenetik, ezin du etxearen alkilerra ordaindu.
- Seme gazteenaren familiarekin bizi da geroztik.
- Kosta egiten zaio bere menpekotasuna onartu eta laguntza eskatzea.

The timeline is divided into three main periods: Gaztaroa (Youth), Helduaroa (Adulthood), and Zahartzaroa (Old Age).

Period	Age	Event
Gaztaroa	15 urte	Lanean hasi
	24 urte	Semea jaio
	26 urte	Semea jaio
Helduaroa	65 urte	Entzumen arazoak
	73 urte	Alargundu
Zahartzaroa	73 urte	Pisua galdu

ZAINTZA BEHARRAK

•	
•	
•	
•	
•	

ZAINTZA BEHARRAK

•	
•	
•	
•	
•	

ZAINTZA BEHARRAK

•	
•	
•	
•	
•	

B. PERFILA.		
Zaintza Beharrak	X	Zaintza Ekintzak
Gaztaroa		
Helduaroa		
Zahartzaroa		

2. ARIKETA. Galderak

Erantzun hurrengo galderak

1. Identifikatu dezakezue komunitatearen aldetik zainduak sentitu zareten momentu bat? Eta zainduak sentitu ez zareten momentu bat?
2. Azpeitia zaintzak erdigunean jartzen dituen herria da?
3. Zeinen esku dago komunitatearen zaintza? Elkarbanatua dela uste dugu?
4. Zer egin dezaket nik, komunitatea zaintzeko?

3. ARIKETA

Amaitzeko galdera

1. Nola goaz saio honetatik? Hitz batekin (azalpen txiki bat eman) ze espero nuen eta zerekin noan.

Itxiera

Zaintza Ekosistema

Herritarrok ditugun zaintza beharrei erantzuteko ezintasuna nabaria da eta ondorioz zaintza eredu berri baten inguruan herri bezala hausnartu eta elkarrekin zaintzen eraldaketarako prozesu bat abiatzea ezinbestekoa da. Komunitatea, instituzio publikoak eta eragileak saretu eta elkarrekin norantza berean lanean jarriko dituen prozesu bat alegia. Zaintzen eraldaketa prozesua gidatuko duen lankidetzazko gobernantza eredu berria izango da zaintza ekosistema.

Hurrengo pausuak

Herritarrentzako galdetegia zabaldu

Zaintza Mahaiaren funtzioaren azalpena

Topaketa eta jardunaldien jakinarazpena

Eskerrak eta agurra

**c. Eranskina 3: Bakarkako elkarrizketa – Elkarrizketa
erdiegituratua**

ELKARRIZKETA ERDIEGITURATUAK		
Datu orokorrak		
Parte Hartzailea/k:	Data: ____/____/____	
Zabalduz Kooperatibako teknikariak: Naiara Franco eta Katrin Etxebeste		
Ekimenaren aurkezpena		
• Helburuak	• Metodologia	• Gobernantza
Asistentzia eta konfidentzialtasunaren sinatzea*		
Parte-hartzaileak bermatu beharrekoa: - Nahikoa informazioa jaso dut azterlanari buruz. - Ikerketari buruz komenigarritzat jo ditudan galdera guztiak egin ahal izan ditut, eta erantzun aproposa eman didate. - Nire parte-hartzea borondatezkoa dela ulertzen dut bai eta nire datuak isilpekoak izango direla ere, eta edozein unetan ikerketan parte hartzea utz dezakedala, inolako eraginik gabe. - Ikerketarako helburuarekin nire datuak erabiliko direla dakit. *Konfidentzialtasun dokumentua atxikita		
Testuingurua		
Zaintzaz ari garenean, zertaz ari gara? Definizio txiki bat kokatzeko. Zaintzaz ari garenean, gure eguneroko jarduna posible egiten duten jardueren multzoaz ari gara (zer moduz dauden galdetzea, bazkaltzeko otordu bat prestatzea, etxe bizitza garbi izatea, umeen zaintza, mendekotasun egoeran dagoen adineko baten etxeko laguntza bermatzea...). Hala, zaintza lanak, herritarren ongizate fisiko eta emozionala egunero eta belaunaldiz belaunaldi birstortzen duten jarduerak direla ulertzen ditugu. Adibideak: - Adineko senide bati deitu, nola dagoen jakiteko. - Gurasoek ezin dutenean haur bat eskolara eramatea. - Gaixorik dagoen senitarteko baten etxea garbitzea. - Bakarrik bizi den lagun edo senide batentzat etxeko janaria prestatzea. - Familiako haurrekin edo bizilagunekin arratsalde bat jolasean edo eskulanetan antolatzea. - Bizilagun bati supermerkatuko poltsak etxera eramaten laguntzea. - Adineko pertsona bati mediku-azterketa egiten laguntzea. - Norbaiti administrazio-izapide zail bat betetzen laguntzea. - Bakarrik edo egoera ahulean bizi diren pertsonentzako tokiko laguntza-talde bat sortzea. - Etxe baten sarreran arrapala bat jartzea, irisgarritasuna hobetzeko.		
1. Blokea: Zaintzen gaineko kontzepzioa edo ikuskera		

1. **Zaintzen gaineko ulerkerak.**
 - a. Zuretzat zer dira zaintzak?
 - b. Baduzu zaintza ardurarik edo zaintzak behar dituen inor inguruan?
2. **Zaintzek herritarren ongizatean duten eragina**
 - a. Zaintzek pertsonen ongizatean eragina dutela uste duzu?
3. **Antolaketa moduak (modu parekidean).**
 - a. Zaintzak modu parekidean banatzen direla uste duzu?
 - b. Noren gain erortzen dira zaintza lanak zure ustez?
4. **Bilakaera demografikoaren (bizi iraupena luzatzea, gero eta adineko pertsona gehiago, jaiotze tasa baxua...) ondorioz sortu daitezkeen erronkak.**
 - a. Bilakaera demografikoak zaintzen ikuspegitik erronka bat suposatzen duela uste duzu?
5. **Erakunde publikoek erronka hauei erantzuteko duten gaitasuna.**
 - a. Erakunde publikoak prest daude erronka honi erantzuteko?
6. **Komunitateak erronka hauei erantzuteko duen gaitasuna**
 - a. Eta komunitatea?

2. Blokea: Zaintza Politikak

7. **Udalak zaintza beharrei erantzuteko eskaintzen dituen zerbitzuak.**
 - a. *Udalak eskaintzen dituen zaintza zerbitzuak (gizarte zerbitzuak) ezagutzen dituzu?*
 - b. *Zeintzuk ezagutzen ditugu?*
8. **Garatzen diren udal-politika hauek herritarren zaintza beharrak asetzeko daukaten gaitasuna.**
 - a. *Eskaintzen diren zerbitzuak nahikoak direla uste duzu?*
 - b. *Asetu gabe garatzen diren beharrak.*
9. **Udal-politiken lehentasunak:**
 - a. *Garatzen diren udal-politikek, pertsonen beharrak erdigunean jartzen dituztela uste duzu?*
10. **Zaintza politika berriak garatzeko beharrak:**
 - a. *Erakunde publikoetatik zein zaintza behar garatzen dira erantzun gabe?*
 - b. *Zeintzuk izan beharko lirake lehentasunak?*
 - c. *Eta etorkizunean? Aurrera begira, prebentzio neurrien beharrak.*
11. **Zaintza hauek erantzuteko ardura.**
 - a. *Zaintza beharrei erantzuteko ardura erakunde publikoek soilik dutela uste duzu? eta komunitateak? eta familiak?*
 - b. *Erakunde publikoen eta komunitatearen arteko elkarlana beharrezkoa dela uste duzu herri zaintzaile bat eraikitzeke?*
12. **Zaintza politikek eta zaintza-harremanak (zaintza komunitarioa).**

- a. *Komunitatetik zer egin daiteke zaintza beharrei erantzuteko? zein rol du komunitateak zaintzei dagokionean....?*

3. Blokea: Zaintzekiko sentsibilizazioa eta erantzun-kidetasuna

13. Bizilagunek zaintza beharrekin daukaten sentsibilizazioa.

- a. *Herritarrek zaintzaren ikuspegia barneratua dutela uste duzu? sentsibilizatuta daude?*

14. Herritarren eskutik garatzen diren jarduerak.

- a. *Herritarrek edo herriko eragileek jarduera edo ekimenak antolatzean zaintzen ikuspegia barneratzen dutela uste duzu ?
(jaietan zaintza beharrak dituzten pertsonentzako eskaintza egokitu, ahulki erosoak jarri, irisgarritasuna...)*

15. Zaintza-komunitarioa garatzeko espazioak

- a. *Herritarren arteko zaintza sustatzeko zein espazio edo baliabide ditu udalerrriak?*

16. Gure parte-hartze pertsonala

- a. *Familia eremutik haratago zein komunitateko pertsonen zaintza "asumitzeko" prestutasuna dagoela uste duzu?*

17. Zaintza-harremanak (zaintza komunitarioa) indartzek proposamenak

- a. *Herritarren arteko zaintza sustatzeko zein proposamen dituzu?*

4. Blokea: Zaintza Ekosistema

Azalpen lagungarria

Herritarrok ditugun zaintza beharrei erantzuteko ezintasuna nabaria da eta ondorioz zaintza eredu berri baten inguruan herri bezala hausnartu eta elkarrekin zaintzen eraldaketarako prozesu bat abiatzea ezinbestekoa da. Komunitatea, instituzio publikoak eta eragileak saretu eta elkarrekin norantza berean lanean jarriko dituen prozesu bat alegia. Zaintzen eraldaketa prozesua gidatuko duen lankidetzazko gobernantza eredu berria izango da zaintza ekosistema.

18. Zaintza Ekosistema bezalako prozesu baten beharra.

- a. *Udalerriko zaintzen antolaketa hobetu eta zaintza beharrei erantzuteko helburua duen zaintza ekosistema bat beharrezkoa dela uste duzu? Zergatik?*
b. *Zaintza ekosistema honetan parte-hartzea gustatuko litzaizuke?*
c. *Inolako ekarpenik egitea gustatuko litzaizuke?*

